

TXIRRITXOLA

Bakioko euskal aldizkaria

2000ko maiatza - 31. zenbakia

**San Jose Eguneko
Txakolinaren Jaia**

**Euskal baserria:
joana eta oraina**

**C. Ranieri
eta L. Fernández Bakion**

ALKARRIZKETEAK



MARIJE MURUAGA ETA INES BARAIAZARBA

JULEN tailerra

Zerbitzu bizkorra

Neumatikoak

Gas-tutuluak

Orioa aldatzea

Balazta zapatak

Beherapen ederrak

Artza Alde, 8
Tfnoa.: 94 619 48 97
48130 BAKIO



GOTZON

Jatetxea

Benta Alde, 135
Tfnoak.: 94 619 40 43
94 619 43 30
48130 BAKIO

Itsasargi Kafetxea

Urkizaur Alde, 73
Tfnoa.: 94 619 47 86
48130 BAKIO



Txomin taberna



HERRIKO KIROLAREN ALDE
Goitisolo Alde, 34 - Tfnoa.: 94 619 40 70
48130 BAKIO

UR-ZABAL TABERNEA

Urkizaur Alde, 73
Tfnoa.: 94 619 43 05
48130 BAKIO



Maria Jesus BIDASOLO MARLOI'ko JANARIDENDA



Benta Alde, 169 - Tfnoa.: 94 619 30 06
(eskukoa) 606 50 68 26 - 48130 BAKIO



PATXI

HARATEGIA
URDAITEGIA

Benta Alde, 171
Tel. eta Faxa: 94 619 40 08
(eskukoa) 606 45 09 25 - 48130 BAKIO

Argitaratzailea: Bakioko Euskera Zerbitzua, Bakioko Kultur Etxea, Urkizaurralde 28, 48130 Bakioko, tel: 94 61 94 001 edo 94 61 93 369, faxa: 94 61 93 118. **Erredakzioa:** Joseba Terreros, Gorane Oleaga, Unai Beitia eta Iniaki Martiartu. **Laguntzaileak:** Anartz Ormaza, Itxaso Urazurrutia, Jonjo Agirre, Garikoitz Etxebarria, Ainara Madariaga, Egoitz Garai, Maria Santisteban, Etor Duoandikoetxea, Iratze Ormaza eta Jon Aingeru Goikoetxea. **Argazkilariak:** Jorge Busturia, Kike Martínez, Aitor Ibarrondo eta Iniaki Martiartu. **Koordinazioa eta hizkuntza ardura:** Joseba Terreros eta Iniaki Martiartu. **Irarkolea:** Gráficas Gaubeka, Gernika-Lumo. **Ale kopurua:** 700. TXIRRITXOLA aldizkariak ez dau artikuluetan idatzitakoen esanik zein eritxirik beraren gan hartuten, artikuluegileak baino. ,

T XIRRITXOLA 31

BAKIOKO EUSKAL ALDIZKARIA

Hiruhilabetekaria - 2000ko maiatza

ZER-NON

Agurra	3
Berbetan: Eskolako arduradunakaz	4
Zer deritoxozu?	7
Eritxia	8
Zer barri?	9
Bertsotan	16
Argazkitan: San Jose Jaia	18
Argazkitan: San Pelaio baseleizea	22
Gai berezia: Baserría Euskal Herrian	24
Gure Artean: Sabina Santana	26
Zuhur ibili	27
Gai berezia: WAP teknologia	28
Zaharrak barri	29
Barri laburrak	30
Baserría: Tabernazar	31
Berbetan: C. Ranieri eta L. Fernández	32
Bitxikeriak	35
Euskerea: Bakioko euskerea-9	36
Herriko Taldeen txokoa	38
Kultura leioha	39
Danetarikoak	41
Atzera begira	44


BERBAURREA

Euskaldunak lurrari zein etxeari begirune handia izan deutse beti. Etxeak aterpea ez eze, izena eta izana be emon izan deutsoz euskaldunari. Lurrak, barriz, zer jatekoa, bizia, bizi-arnasea, hatan be. Norberaren lurrak eta etxea galdutea, norberaren izena, nortasuna galdutea lez hartu izan da beti gure artean. Norberaren duintasuna galdutea, azken baten.

Herrion lurrari begirune handiagoaz begiratu beharko geunskio. Bakiok herri nortasunari gura badeutso eutsi, lurrari sendoro eutsi beharko deutso, gurataez. Lurrari zein etxeari, **nor** eta **nontar** izaten jarraitu ahal izateko. Lurrari eutsi ezean, beste batzuk izango dira nor gure etxean. Gure umeez **nor** hori harrotasunez bihotzean eroan daien, egin daigun behar. Ez daiogun oso katolikoa ez dan kontsumismo merkeari aterik zabaldu. Ez dogu damurik izango.

TXIRRITXOLA

AGURRA
maiatza 2000



BAKIOKO UDALAK
diruz lagundutako aldizkaria

TX-31

3

Urkitza eskolako arduradunakaz berbetan

Urkitza Ikastetxea

Bakio



Danontzako eskola
urte 2tik 12 urtera

Izan zaitez zeure herriaren
partaide, eskolan be parte hartuz

Matrikulatu zaitez!
Otsailaren 7tik 18ra

UBALETXEA



BAKIO

GURASAK

URKITZA IKASTETXEO
IKASLEEN GURASO ELKARTEA
BAKIO

ESKOLA



URKITZA
IKASTETXEA
BAKIO

Guztiok dakigun lez, gaur eguneko ikastetxeak gero eta esparru gehiagori oratu eta ardura handiagoak hartu beharrean dagoz, besteak beste, gurasoek lehenago beteten ebezan zereginetarik hainbat eta hainbat eurenganandu behar izan dabezalako. Horregaitik, ez da harritzekoa eskolen funtzionamendu eta eginkizunak korapilatu izana. Ardatz hau kontuan izanda, gai honen inguruan berba egin gura izan dogu Ines Baraiazarra gure herriko eskolako zuzendariagaz eta Marije Muruaga Guraso Alkarteko buruagaz. Halan bada, eskolako oraina, geroa eta erronkak berbabide hartuta, itaun batzuk egitea sano interesgarria izango zala begitandu jakun. Eurek adirazotakoa zuoi guri besteko jakingarri suertatuko jatzuelakoan, hona hemen gure berbaldiaren zatirik garrantzitsuenak.

TX: Oker ez banago, 20 urte inguru egin dozuz Bakioko eskolan, zeintzuk dira tarte horretan sumatu dozuzan aldatarik esanguratsuenak ikasleen zein azpiegituren aldetik?

I.B.: Bakion eskolak emoten hasi ginanean, ikastetxea eleizearen ondoan egoan. Handik hona agiriko aldaketak izan dira, esaterako, guraso eta irakasleen ekimenari esker lortutako eraikin dotore hau. Hori bai, ume kopurua sano gitxitu da azken urteotan. Beste alde batetik, ikasleei jago-

kenez, belaunaldi aldaketea egon da, eta geu, irakasleok, sasoi barri honeetara egokitzen ikasi beharko dogu, gizarte balioak nahiko aldatu diralako. Edozelan be, ez dot esan gura lehengo ikasleak oraingoak baino hobek edo txarragoak ziranik. Oraingoek gizartearen beraren aldaketak sortutako beste balio batzuk daukez, besterik ez.

TX: Erreformearen ostean hainbat gai eskolen pentzudan lotu dira, esate baterako, bide, ingurumen, sexu, musika, balio

eta abarren hezkuntzea. Ez da hori guztiori eskolearen ardurapean gai larregi iztea?

I.B.: Sarritan irakasleen artean aitutzen dogun gaia da, eta guk ataratako ondorioa da gizarte eta familiaren egitura aldatzeak ekarri dauala eskolearen kontura hainbeste ardura izatea. Izan be, gizartea bera nahiko korapilatu da eta gaur egun familiarean ez da alkarregaz hainbeste gai lantzen. Horreri erantzuteko, bada, eskoleak konpentsazino lanak egin behar izaten dauz, familian lantzen



ez diran balioak transmititu guran. Edozelan be, gatxa da, ze arlo askotako gai ezbardinak landu beharrean gagoz.

M.M.: Gure aldetik, guraso moduan, familiaren arlo hori jorratu gura izan dogu. Dana dala, orain dala urte birik hona ez dogu berbaldirik euki umeen heziketan familiaren inplikazioak daukan garrantziaren ganean. Orain, oster a be, ahalegintzen hasi gara holango ekintzak abian ipinten, baina aita-amek beti esaten dabe ez daukela behar besteko astirik, beharrean dagozalako, ezin dabelako edo orduak egokienak ez diralako. Horretan gurasoen inplikaziorik eza igarten dogu. Eta, benetan, penagarria da, ze holango ber-



baldietan asko ikasteaz ganera, entzundako gauzak praktikan ipini ahal dira.

TX: Badakie gurasoek zertan datzan aita-amen eta eskolearen arteko baterako hezkuntzea? Edo gero eta handiagoa da ardua guztiak eskolearen esku izteko jokabidea?

I.B.: Guk, irakasle modura, bai igarri dogu lehengo gurasoetatik oraingo gurasoetara eskuhartze eskasagoa, beharbada ez heziketan bertan baina bai beste arlo batzuetan. Guraso Alkartekoei be sarritan entzuten deutset, eurak alkartetik joandakoan ez dala beste inor egongo beharrerako prest. Eta egia da, nahi ta gurasoek gero eta kultura eta informazio maila altuagoa euki, eskolearen kontura ardura lar izten dabez. Era berean, argi ikusten dogu indar handiagoa egiten dana eskatzeko orduan, eskua luzatzeko orduan baino.

M.M.: Guk be argi ikusten dogu aita-amen eskuhartze eta inplikazioa ez dana guk gura geunken besteko ona. Eta gauza asko egiten badira be, tiraka-tiraka ibili behar izaten dogu. Zorritzarez, gizarte honetan guzti-guztiok gero eta modu indibidualistagoan jokutzen doguna igarten da.

TX: Hurrengo urteari begira urte biko umeentzako gelea abian ipinteko asmoa dago. Eskolarik gehienetan horrelakoak egon arren, ez dozu pentsetan lar goiz danik umea etxetik, gurasoen aldetik atara eta aita-amen ardurak kentzeko? Ez da umeak «aparkatzeko» beste toki bat izango?

I.B.: Ba, egia esan, guk be pentsakerea aldatu behar izan dogu azken urteotan. Orain dala 20 urte, esate baterako, uste genduan umeak etxera bazkaritan joatea askoz egokiagoa zala, gurasoak euki beharreko hartuemonak ez galtzeko. Dana dala, gizartearen

egiturea aldatukeran, gaur egun mota honetako zerbitzuak eskaini beharrean gagoz, holangoak emotea behar-beharrezkoa dalako gurasoen eskaerei erantzuteko eta kalitatezko produktua opesteko. Beste alde batetik, nik ez neuke ezelan be aitatu «aparkatzeko tokiarena», eskoletan konpentsazio lana egiten ahalegintzen garalako, hau da, etxeetan izaten diran ezbardintasunak bateratu eta hainbat esparrutan galdu diran balioak transmititzeko ahaleginak egiten doguz, ume guztiak antzeko aukerak euki daiezan. Alde horretatik, bada, eskolak ezin dira aparkalekutzat hartu. Hori bai, guztiz errespetagarria da oraindino umeen heziketa lehenengo urteetan etxean bideratu behar dala pentsetan daben gurasoak egotea. Baina, itauna hau da: badago gaur egun horretarako aukerarik? Ze bikotekide biak beharrean badagoz, umea jagoteko pertsona bat hartu behar izaten da. Orduan, umea adin bereko beste batzuek egoteko aukerea baztertzen da. Hori dala eta, nik uste dot gaur egun urtenbide ona dala adin horretako umeak eskolara ekarte, etxean beste pertsona batez iztea baino.

M.M.: Nik, egia esan, lehengo ama modura pentsetan dot eta nik ez neuke adin horregaz eskolara eroango, baina beti be ni etxean nagoala kontuan hartuta. Ganera, hartuemonak lantzeko be badago gurasoen beharra: ume txikerrak daukezan pertsonak topatu, kalera urten eta paseoak egin... Dana dala, egoki baino egokiago ikusten dot era horretako zerbitzuak eskaintzea, eskoleak gaur eguneko errealitatearen arabera jokatu behar dualako. Ganera, esan behar da une honetan urte biko umeentzako gelak guztiz arruntak dirala eskolarik gehienetan. Halan da ze, hau guztiau ez da aparteko gauzat hartu behar.

TX: Gizarte eta teknologiararen abiadura eta aldaketak hain handiak izanda, badagoz irakasleak eta gurasoak prestatuta gure sistemak sortuazotako desfaseei erantzun egokia emon ahal izateko?

I.B.: Ba, egia esan behar bada ez gagoz behar bestean ondo prestatuta. Guztiagaz be, hau jazoteko erantzukizuna administrazioarena da, teknologia barrien arloan, esate baterako, eskolea atzeratuen-etariko bat dalako. Hori, zoritxarrez, jazoten jaku administrazioak irakasleak birziklatzeko egitasmorik martxan ipini ez daualako. Orduan, egindako gutzia gure borondatean oinarritutakoa baino ez da izan. Hori, jakina, ez da biderik egokiena, gurataezko birziklapen ikastaroak antolatu behar diralako eta ez norberaren jakinminean edo borondatean oinarritutakoak.

TX: Zeintzuk dira eskolako hurrengo urteetako erronkarik nagusienak?

I.B.: Udalak eta guk, une honetan, erronka bera daukagu: herri honen etorkizuna jago-tea. Eta herri bateko geroa jago-teko, guztiz garrantzitsuz hartzen dogu eskolearen etorkizuna, neure buruan ez da sartzen eta, eskola bako herririk. Hori, herri hila izango litza-teke. Ikastetxeei eutsi behar jake, gurea lako herriei bizitasuna emoteko. Arlo honetaz gainera, gure profesionaltasuna jagoten jarraitu behar dogu, eten bako birziklapena planteatuz. Izan be, gure esparruan dabilen profesionalak argi euki behar dau zelango gizartera goazan, zelango erronkei egin behar

jaken aurre eta horren arabera egokitzen jakin.

M.M.: Arlo honen ganean lar ez dakidan arren, teknologia barriek bildur apurtxu bat eragiten deuste, horreek larregizko indibidualismo eta komunikaziorik eza ekarriko ez ete deuskuen itauntzen deusot neure buruari.

I.B.: Hori, dana dala, gure ikuspuntuaren arabera jazoten da eta neurri bateko aurreritxia be izan leiteke, ze gure gurasoen sasoi aintzat hartzen badogu, guk egin genduan saltoa be itzela izan zan eurentzako.

TX: Azkenik, eta txantxa modura betiko topikoaren inguruan itandu gura deusut. Zuon oporraldiak dirala eta, Ines, irakasleok ondoen bizi diran profesionalak zaree?

I.B.: Ba, erantzuteko, esan behar deusut, gauzak aldatu egin dirala eta irakasleok ez garala ondoen bizi diranak, parlamentarioak baino. Edozelan be, eta txantxak alde batera itzita, guk daukaguzan

oporraldiak beharrezko ikusten doguz umeentzat zein irakasleontzat.

TX: Era berean, profesionalik depresiboenak ei zaree. Mito hori zenbateragino hartu leiteke egiazat?

I.B.: Bai, maisu-maistren lanean dagoan gaixotasunik zabalduena ei da, estatistikei begiratuta. Edozelan be, ezin dogu alderatu Bakion daukagun estres mailea beste alde batzuetan daukenagaz. Ze, zorionez Bakio ez da herri arazotsua eta horrek laguntzen deusku beste patxada batez hareri eusten.

TX: Tira, ba! Ea guztion laguntzino, behar eta ekarpeni esker bizirik eusten deutsegun Bakio lako herrietako eskola txikiei!

Joseba TERREROS



Dakizuen lez, Euskal Herria da Europako jaiotza tasarik txikerrena daukan herrialdea. Gauzak holan, hainbat komunikabidetan entzuten hasiak gara gizarte segurantzera eta jubilazinoko soldatea desagertu leitekezala, gizartea gero eta zaharragoa izango dala eta kanpotarrak ekarri beharko dirala behar egiteko. TXIRRITXOLAK hainbat bakiotarrerri itaundu gura izan deutse zer egingo leukeen horrelango egoerari urtenbideren bat topetako.

Antza, Euskal Herrian ez dago behar dan beste umerik. Zuk zer egingo zeunke egoera hori konpontzeko?



Gorka URIARTE

Nik egin beharrekoa egin dot. Dana dala, gauza erreza egin leiteke: kondoiak zulatuta saldu. Txantxa ona izango litzateke.



Sabino AREITIO

Lehenengo bizi behar da eta gero, 40 urte gaz edo, umeak mundura ekarten hasi.



Sokorro BILBAO

Nik gatx-gatx ikusten dot kontu hori, oso eroso bizi gura dogulako. Ganera, nik ez dakit jendea konforme egongo dan umeak edo gazteak kanpotik ekarteko. Ume gitxiago ikusten ohitu beharko dogu, seguru antzean.



Joan Mari ABIO

Oraingo gazteek lar dakie umeak mundu honetara ekarteko, ze ezkondu baino lehenago ondo baino hobeto ezkondu dagoz eta lar ondo bizi gura dabe. Dana dala, bide bat izan leiteke, ama edo aitari dirulaguntza ona emotea umea jagotearren.



Jasone LONGARAI

Aita-amei erreztasun gehiago emon behar jakez, benetako zerbitzuak eskainiz. Umezaintoki gitxi eta karuak daukaguz, eta, ganera, andrazkoei ondino be itaunduten deuskue ea umeak ekarteko asmorik daukagun ala ez. Umeak ekarri behar badira, horren aldeko politikea bultzatu behar da.



Maria SANTISTEBAN

Umeak hazi eta jagoteko denpora gehiago euki beharko leukee gura-soek. Ez dot uste diruak bakarrik arazoa konpondu leikenik.

«Ukondoa hurrean, baina munik ezin egin.»

OHARRA:

Arlo honetara bialduko diran eritxiek izenpetuta egon behar dabe, izenpetzailearen izena eta telefono zenbakia emoteaz gan. Gehienez jota, 40 lerroko idazkiak onartuko doguz.

Beste aldetik, ez dogu iraingarritzat jo leiteken eritxirik argitaratuko, ez eta inoren izen edo irudiari kalte egin leikionik be.



GOLFA BAKION

Zenbat jende dago golfean egiten dabenak? Nork olgauko dau golf-zelaian? Ez dagoz ala nahiko golf-zelai Bizkaian? Norentzat da onuragarria golf-zelaia Bakion? Nork atarako dau etekinik handiena? Ez dago ala bestelango beharizanik Bakion? Zenbat lur kendu behar deutsee baserritarrei hori egiteko? Baserritarrek, benetan, zer atarako dabe horretatik?

Zenbat lur behar da? Zenbat ur behar da egunero bedarra ureztuteko, batez be, udan? Golf-zelaiaren bedarra ekologikoa da? Zenbat diru kostatuko jaku bakiotarroi?

Iratze ORMAZA

ALAITASUNA PILOTA TALDEA

San Jose eguna urterik urtera arrakastatsua goa eta ekintzetan ugarriagoa da. Bazan sasoi, bai! Idi probak eta txakolin feriaz ganera, pilota jaialdiz beteta egon zan asteburua.

Barikutik zapatura, palako maratona egin zan. 40-45 bitarteko herriko mutil gaztek hartu eben esku (aurton nesken hutsunea igarri-igarria izan da). Pelotari gehienek goizaldeko ordu gogorak igaro ostean, arratsaldeko 5etan jokatu zan finala. 25 urtekoek 40koei irabazi eutseen: Egoitz eta Jonek, Marmol eta Juan Karloseri.

Ondoan, profesionalen arteko partiduei emon eutseen bidea. Lehenengo, Legorburu eta Esnalek eskuz banaka jokatu eben. Ostean, eskuz binaka Errandonea II eta Olidenek, Barela eta Mendiaren aurka. Frontoia, iragarkiz jantzita, jendez beteta egon zan, telebistairratiek jokaldirik onenak eskain-

tzen ebezala.

San Jose egun beratan, goizean, Eskolarteko Umeen Txapelketea jokatu zan frontoian. Bakioko Urkitzakoek 3 partidutik 1 irabazi eta 2 galdu ebezan, Galdakaoko pelotarien aurka.

«EPSA» Europako txapelketarako lehia puntuagarria

Bakiko Surf taldeak garagarriean «EPSA» izeneko Europako txapelketarako lehia puntuagarria egin gura dau gure herrian. Euren esanetan, lehia hori garrantzi handikoa izateaz ganera. Bakio Europa mailako surfeko erreferente bihurtuko dau hainbat egunetan barrena. Era berean, guztiz zehaztuta ez badago be, aitatu egin deuskue Ipar zein Hego Euskal Herriko surflarien arteko txapelketa egiteko asmoa daukela. Gainera, eta urtero lez, aurtengo udan be jarraituko dabe gazteenak surf munduan murgiltzeko eskolak emoten.

(38. orrialdetik dator)

TXIRRITXOLAREN IRAGARKIEN SALNEURRIAK

Hona hemen TXIRRITXOLAn iragarkiren bat imini gura dozentzako salneurri barriak. Salneurriok 2000ko urtarrietik aurrera dagoz indarrean. Inork iragarkiren bat erosi gura izan ezkeron, deitu bei arrastietan Kultur Etxeko telefono zenbaki honetara: 94.6193369.

Orrialde (mm.)	4 ale	3 ale	ale 2 / ale1
8rena (125 x 85)	10.000	7.500	5.000
16rena (87 x 66)	7.500	5.000	3.750
32rena (66 x 40)	5.000	3.750	2.500

Eskerrik asko etorteagaitik!



KAFETEGIA

Benta Alde, 75
Bekabarri
Tfnoa.: 94 619 40 59

Sabin'en
Jatetxea

Benta Alde, 72
Estibaliz
Tfnoa.: 94 619 40 41

48130 BAKIO



SANTA AGEDA BAKION

Zezeilaren 4an, Santa Ageda bezperan, urtero lez, ibili ziran hara hona Bakioko Abesbatzekoak eta eskolako gurasoak alkartuta Agate Deunari koplak abestuten. Aro hotza izan arren be, ez ziran bada abeslariok bape kikildu eta herriko kale nagusian zehar ibili ziran jo ta ke abestuten. Ahor, osterantzean, alboko argazkia.

LEHIAKETEN IRABAZLEAK



San Jose Eguneke Kartel Lehiaketearen irabazlea Bilboko Eduardo GONZALEZ izan zan eta 75.000 pta-ko saria eskuratu eban.

Euskera Batzordearen Logotipo Lehiaketearen irabazlea Urretxuko Mikel Arrano izan zan eta 20.000 pta-ko saria jaso eban.

ZUGATZ EGUNA

Pasa den zezeilaren 18an zuhaitz eguna ospatu zen Bakion.

Urkitza ikastetxeko ume, irakasle eta udaletxeko langileek hartu zuten parte naturaren aldeko egun honetan.



ZER BARRI?
maiatza 2000

TX-31

9

PATXI RENTERIA, TXARRIKIETAKO EUSKADIKO TXAPELDUNA, SOPUERTAN



Sopuertan martiaren lehenengo asteburuan egindako txarriki txapelketan Bakioko Patxi Renteria izendatu eben txarrikietako Euskadiko egilerik onena. Dana dala, ez da Patxik irabazi dauan lehengo saria. Izan be, Mungiako San Antontxuko ferian bigarren lotu zan txorizoen txapelketan. Halan da ze, Sopuertara bertaratu zan beraren produktuen kalitatea egiaztatu guran. «*Aurreko sarien ostean, neure buruari esan deutsot: gurean egiten dan txorizoak zerikusia euki behar dauala horrelakoak irabazteko orduan. Orduan bada, hona etorri gara hori egiaztatzen*».

Nekazalturismoa bultzatzeko ikastaroa

Apirilean nekazalturismoaren inguruko ikastaroa amaitu da arrakasta osoz. Bertan 20 pertsonak hartu dabe parte eta 3 gai izan dira nagusi: batetik, finantziazioa; bestetik, kalitatea eta zerbitzua; eta azkenik, paisaia eta eraikinak jagon eta birreskuratzeko gida lerroak.



Kontrolbako Sastartokiak

Gure herriko bide bazterretan, mendi bizkarretan zein amiletetan hainbat bider ikusi izan doguz baten batek, gehienetan ilun dagoanean, edonon, bertan behearen ganera botatako sastarrak edo etxeo hondakinak. Horreei deritxegu, bada, kontrolbako sastartokiak.

Sastartokiok, ganera, jαιο eta, hazi egiten dira arin-arin. Ingurugiro eta izadiari kalte handi be handiak egiten deutseez sastarrak edozein lekutara botaten dabezanez. Bizkaiko Aldundiak, bada, horeelango 168 kontrolbako sastartokiak garbitu eta lekuak lehengoratu gura dauz Bizkai osoan. Horetatik batzuk Bakion be bai. Sastarrak bota ahal izateko, baina, «Garbigunea» deritxen kontrolatutako sastartokiak atonduko dira han-hor-hemen.

ALDI BATERAKO HONDARTZAIN ETA UDALTZAINAK

Bakioko Udalak aldi baterako bost udaltzain eta hiru hondartzain kontratatzeke iragarkia zabaldu eban zezeilaren 2an. Beharron hitzarmenaren iraupena: bagilaren 1etik irailaren 30era arte izango da 3 udaltzaintzako eta garagarrilaren 1etik dagonilaren 31ra arte beste udaltzain bientzako. Azkenik, hiru hondartzainek bagilaren 1etik urriaren 15era arte egingo dabe behar. Izena emoteko epea zezeilaren 22an amaitu zan.

ESKERRAK BIHOTZETIK!

TXIRRITXOLA aldizkaritxu hau jaio zanetik laster izango dira 9 urte. Urteotan makinatxu bat behar egin da aldizkaria aurrera atarateko. Aldizkaria egin bai, baina, gero etxeetara eroan behar. Ahor ibili dira esku bete herritar hara hona musutruke aldizkaria eroaten, zahar, heldu zein gazte, andrazko zein gizonezko. Eurok barik ezin izango geuntson TXIRRITXOLari berari, behar dan lez, zeuekaine heldu eragin. Eurok be aldizkariaren zati handia dira, eta ez leba gitxikoa, gero! Inor ahaztu barik ez itzitearren, izenak aitatu barik, aldizkaria etxeetara eroaten ibilitakoei zein ibiltan diranei bihotz-bihotzetiko eskerrak. Urte askotan!

UDALEKU IREKIA

Datorren garagarrilan Bakion izango dogun Udaleku Irekia eratuko dau Euskera Batzordeak. 7 urterik 12 urtera bitarteko umeentzako izango da udaleku hori, goizeko 10etatik arrastiko 5etara, izan be. Argibide gehiago gura izan ezkeru, jo eizue Kultur Etxera.

HAUTESKUNDEAK BAKION

Espainiako Legebiltzarretarako hauteskundeak egin ziran martiaren 12an. Bakiori jagokonez, ez zan, hori dala-eta, egun beratan ezer aitagarriarik egon. Dana ohi dan lez igaro zan. Emoitzak, beti Espainiako Kongresuari jagokozala, honeexek izan genduzan:

	<u>2000</u>	<u>1996</u>
Hautesleak	1.420	1.140
Abstentzinoa	399	222
Zuri-hutsak	45	26
EAJ	755	559
EH(HB)	---	125
EA	96	100
PP	63	43
PSOE	31	33
IU	22	26
Besterik	9	6

Arteragoko hauteskundeetan (1996. urtean) baino 280 lagun gehiagok euki dabe eskubidea euren aukerea egiteko. Abstentzinoak % 19tik %28ra igon dau. EAJ %43tik %53ra joan da gorantza. EAK, barriz, %9tik %7ra egin dau behera. PP gora joan da %4tik %4,5era. PSOE eta IU, ostera, beherantza joan dira. Argi ikusten da, bada, EAJk egin dauan gorantzko teinkadea. Abstentzinoak egindakoa baino apurtxu bat handitxuagoa, hatan be. Ehuneakoak hautesle kopuru osoaren arabera kalkulatu doguz.



Bentatik Bizkarganerako espaloiak amaitzeko aginean

Bentako aparkalekutik Bizkarganera doan bidearen alboko espaloiak hemendik gitarra amaituko dira. Beharrok zezeilean hasi ziran eta maiatzean amaitzea aurreikusita dago. Halan da ze, behar horreek aprobetxatuz, aparkalekuko gunea apur bat handitu da eta Bakion oinez ibilteko beste eremu bat egongo da.

Bakioko Udalak 50.000 pezetako dirulaguntzea SEASKARI

Seaskako «Herri Urrats» jaia 2000ko maiatzaren 14an egingo da «Gaurdanik gerora» leloaren pean. Hori dala eta, jaietako antolatzaileek udalari bialdu eutsoen Iparraldeko ikastolei diruz laguntzeko eskabidea. Udalak eskabidea kontuan hartu eta 50.000 pezetako zenbatekoa emon deutse ekarkin ekonomiko lez. Era berean, Euskera Batzordeak «Herri Urrats» jai handi horretara joateko autobusa ipiniko dau. Halan bada, bakiotar guztiak animatu gura doguz euskerearen aldeko jai horretara joan daitezcan.

Bakion Euskadiko Mendi Bizikletako Txapelketea

Martiaren 12an Bakion egin zan Euskadiko Mendi Bizikletako hamar lehia puntuagarrietariko lehenengoa. Lehiaketa horretan 163 txirrindularik hartu eben esku hainbat kategoriatan bananduta. Eskuhartzailerek igarrian-igarrian itzi gura izan eben Bakion izandako antolaketa ona eta giro bikaina.

Bakio Mozambiquegaz bat eginda

Guztiok dakigun lez, zezeileko uriolen ondorioz, Mozambique une honetan estualdi ezin larriagoan dago.

Hori dala eta, udalak 100.000 pezetako laguntzinoa heldu eragin gura izan deutso herrialde horrerri, EUDEL alkartea osotzen daben udal guztiek batera abian ipinitako kanpainaren bitartez. Era berean, herritarrei laguntzinoa emoteko eskatu jake BBK-ko 2095-0611-00-9102291358 kontu zenbakian dirua sartuz.

Identifikatuak hareatzen hondoratutako belaontziaren hondakinak

Ikerketa honegaz arduratzen dan lan taldeak (Miguel Uriarte Sancho, Juan Uriarte De Grado, Sabin Uriarte Picó, Ander Uriarte Egurrola, Iñaki Oiarzabal Uriarte, Igor Goti Zugadi eta Alejandro de Pablo) zehaztu ahal izan dau belaontzi hori «Sloop» izeneko fragata ingelesa izan zala. Itsasontzi hori 1800-1840. urte ingurukoa zan eta makila bakarra eukan, bai eta erreskadan ipinitako bela triangeluar bi be. Kortsarioek eta itsas lapurrek erabili ohi ebezan ontzien antzerakoa zan. Ikerlan honeri jarraituz, XIX. mendearen erdialdean egin eta Bakioko Udalak 1890etik aurrera erabilitako armarrarian agertzen dana (egiaztatu ahal izan da horren ezaugarrien antzeko belaontzi bat agiri dala) hondoratutakoagaz zerikusia euki leikena. Armarrriaren irudian itsaso bizi-bizia eta belaontzi bat agertzen dira, bai eta Bakioko parrokiaren dorrea be, gaur eguneko armarrarian itsasargi batez ordeztua izan dana.

Kanoiak ibiltokian ipiniko dira eta, geroago, etorkizuneko museoan

Orain arte hondakin horreetatik birreskuratu ahal izan dira 7 kanoi, kanoietarako bolak (normalak eta hausleak), aingura bat, fusil bat, kanoietako baketak, eskudelaren, balkoiaren zein txokoaren zati batzuk eta «B» iniziala daukan kontrapisua. Horreek guztiorreek jagon guran, gatzak sortutako ugertzea neutralizatzeko ahaleginak egi-ten dabilz, hondatu ez daitezana.

Halan da ze, kanoiak birreskuratu ostean, udalak itsas ibiltokiaren erdialdean ipiniko dauz. Edozelan be, Bakioko museoa abian ipinten danean, kanoiok bertan kokatuko dira. Ganera, euren historia jasoko dauan erakusketea egiteko asmoa dago.



Udalak daborduko San Pelaioko auzoko Urkitxiko ur biltegia amaitu dau. Horren helburua izan da auzoko horretako herritarrei behar dan moduko zerbitzua emotea. Izan be, oraintsu arte hango ura Burgoatik hartzen izan da, baina sikate sasoiaren ez zan eskabideari egiteko beste. Hori dala eta, 100 metro kubikoko ur biltegi barria egin da, sanpelaiotarrek problema bape euki ez daien ur hornidureagaz.

MUSIKA TALDEAK BAKION

Probalekuan, ordutegi eta egun ez-bardinetan, lau taldek entsaietan dabe astero. Talde horreen izenak honeexek dira:

- «*Bi zilbor*»
- «*Gogoak askatu*»
- «*Club Zinbawe*»
- «*Itxas 2.000*»


Argazkian, «Gogoak askatu» taldekoak agertu dira: Alberto, Gaizka, Iker eta Urtzi.





ERAKUSKETAK

Marta Cárdenas

Bisitarien gida




Sustraiak eta abarrak



ANA ISABEL ROMÁN

Ametsetako hiria



Sustraiak eta abarrak

ZER BARRI?
maiatza 2000

TX-31

14

Sasoi honetan Kultur Etxean euki doguzan eta etortekoak diran erakusketak honeexek dira:

- * Marta Cárdenas-en marrazkiak, zezeilaren 8tik 22ra arte.
- * Ana Isabel Roman-ek egindako «Ametsetako hiria», zezeilaren 23tik martiaren 13ra arte.

- * «Non dago zure laranja erdia?», Emakundek ekoiztutako erakusketea, martiaren 24tik apirilaren 5era arte.
- * Maximiliano Tonelli-ren argazkiak, apirilaren 14tik maiatzaren 2ra arte.



KULTURA ETA ASTIALDI EGITARAUA

Datozan hilabeteotan kultura eta astialdi ekintzak eurrez eukiko doguz gure herrian. Ekintzok Kultur Etxeko, Turismo Bulegoko, Bakioko Abesbatzeko, Itxas-Aldeko eta Euskera Batzordeko kideen ahaleginaz zein Bakioko Udalaren babesaz eratu ahal izan dira. Gazte, heldu zein zaharrentzako danetariko ekintzak egongo dira. Eratu egiten dira gauzak herrian, orain herritarren erantzuna beharrezkoa da egindako ahalegina onuragarria izan dakigun. Esan behar dogu be, ia ekintza guztiak euskeraz izango dirala.

MAIATZEAN

- 5ean Ipuin erotikoak: TXOBERNE tabernan.
- 6an Urtekerea: Hegoaldeko ARABARA joateko.
- 12an Berbaldia: Dietetikearen ganean, Kultur Etxean.
- 13an IV. Mendi Txirrindula Ibilbidea, Bakion zehar.
- 14an Herri-Urrats: SENPERERA joateko.
- 19an Diaporamea: Arturo Elosegiren NAMIBIA, Kultur Etxean.
- ?? Mahai ingurua: «Herri euskera euskera batuan», Kultur Etxean.

BAGILEAN

- 3an Urtekerea: NAFARROARA joateko.
- 17an III. Kaleko Pintura Lehiaketeta, Bakion zehar.
- 23an Doniene Sua: Zubiaurren.
- 24an Doniene Eguna.
- 26an San Pelaio Eguna.

GARAGARRILEAN

- 8-9 Piragua ikastaroa: Bakion.
- 10tik Marrazkigintza ikastaroa: Kultur Etxean.
- 10-15 Hipika ikastaroa: Bakion.

- 10-12 Zeramika tailerrak: Kultur Etxean.
- 12an Urtekerea: GIPUZKOARA joateko.
- 13an Ipuin kontalaria: Kultur Etxean.
- 14-16 Surf txapelketea: Haretzan.
- 17-19 Zeramika tailerrak: Kultur Etxean.
- 17-23 Musika Astea: Goiko eleizan.
- 17-28 Udaleku Idegia: Bakion.
- 22-23 Piragua ikastaroa: Bakion.
- 26an Arkuz jaurtigiteko ikastaroa.
- 27an Ipuin kontalaria: Kultur Etxean.
- 30ean Nazinoarteko XIV. Folklore Jaialdia.
- 31an San Inazio Eguna: Bakion zehar.
- ?? Bideo emonaldiak (erderaz): Kultur Etxean.

OHARRA: Argibide gehiagorako jo eizue Kultur Etxera edo Turismo Bulegora. Kontuz!, adierazotako egunak be aldatu leikeez-eta. Zuhur egon! Goian esandakoak ez dau kenduten ekintzaren bat edo batzuk bertan behera iztea zein beste batzuk be gehitutea.


BERTSO TRAMEA

Zezeilaren
25ean
Eneperi Jatetxean,
21:00etan



BERTSO AFARIA

JON MAIA
JESUS M.^a IRAZU
Gai jartzailea:
Josu Goikoetxea



BERTSOTAN
maiatza 2000




Bakioko Euskera Batzordea

TX-31

16

URIZARRETAN BERTSOTAN

Aspaldian ohikoa dan lez, aurten be aratoste inguruan bertso kantuak entzun ziran gure herrian. Oraingoan, Eneperi jatetxean tokatu jakun eta Jon Maia eta Jexux Mari Irazu izan ziran bertsolari, eta trama jartzaile Josu Goikoetxea. Trama jartzaile dinogu, ze gaia holakoa izan zan. Hau da, gaijartzaileak herriko fikzinozko pertsonaiak eta jazokerak asmatzen dauz eta bertsolariek hareen papera egin behar dabe. Halan da ze, harearen inguruan ia ahaztutako arazoa birragertu zan eta baita gure inguruko San Migel, San Pelaio eta San Joaneko ermiten tramearen ingurukoa be. Esan behar dogu, larogitazak entzule egon ginala eta saio nahiko txukunak urten eutsela bertsolariei. Ahor daukazuez, bada, gau haretako amaierako bertsoak.



Zer ote zan motiboa
bazan gure enbidia.
Tanto askora igoa,
txalo hotsekin erantzunikan
hemengo bertso tiroa.
Nik ez nekien Bakion bazenik
holako bertso giroa.

Germani urteak kolpeka,
belaxe sasoz betea,
badu ezkontzeko beta.
Aio esanda alde egin behar,
hau izan da gure buelta.
Gaztelugatxe konkistatzera
abittu behar dugu eta.

Orain badakigu zer den
bertan kantatu ondoren.
Entzulea behintzat gailen,
pozikan asko, oso gustora
aurkitu gera gaur hemen.
Ea berriro itzultzen garen,
German ezkondu baino lehen.


Hori da egi lodia,
bazuen kategoria.
Dena bukatu da ia,
hementxe dago eszenarioa:
inperua eta gloria.
Orain bakoitzak egin dezala
benetako historia.

Gipuzkoatik ihesi,
orain itzuli ez kasik,
hemen baikera nahasi.
Eskerrik asko giroak ez zun
gaur gitxiago merezi.
Berriro zuek nahi bitartean:
aio eta ondo bizi.

Unai BEITIA



Argazkitan



SAN JOSE EGUNeko TXAKOLINAREN JAIA



Aurtengo San Jose eguneko izarra txakolina izan da, zalantza barik. Esan leiteke idi-probek garrantzia galdu eta txakolinak ha eskuratu dauala. Jendez ganezka egon zan Zubiaurreko alderdia eta bertaratu ziranek mama gozoa, txakolina, txastatu ez eze, txahalki eztitsua jateko aukerea be euki eben. Arin be arin amaitu zan Gorrondona, Zabala eta Abio txakolinginek ekarritako txakolina. Ha zan egarría eta txakolina edan beharra!

Xabier Euskitze bertsolaría eta ETBko aurkezlea izan zan aurtengo txakolin uztearen aitabitxia. Izan be, orain dala 15 bat urte bertsolari lez Bakion agertu zan lehenengoz jendaurrean. Bilboko Beti Jai Alai dantza taldekoek maisukiro egin eutsoen ohore-agurra. Azoketan egoten diran lez, Bakion be abere eta piztiak egon ziran ikusgai. Eta ez edozelangoak, gero!

Arrastian, barriz, umeentzako Gorritiren piztiak eta nagusientzako idi-probak, 55. Bakioko Txapelketearen azkena, hatan be.







ARGAZKITA
maiatza 2000


TX-31

19





BAKIOKO SAN PELAIO BASELEIZEA



Gure herriko auzorik ederrenetarikoa bateri izena emoten deutson eleizearen ganeko azalpen batzuk dotatzuez hurrengo lerrootan. Jakingo dozuenez, oraintsu izan da barriztatua erlijiozko erai-kin hori eta esan behar da, behar onona egin dabela bertan.

- Eleiza horrek daukazan ezaugarriak nagusienak erromaniko sasoikoak dira, hau da, XII. gizaldiaren ingurukoak. Zehazkiro, historialariek gizaldi haren azken berrogeita hamar urteetan kokatzen dabe beraren eraikuntzea. Esan behar dogu be, Bizkaiko Arte Erromanikoaren erakusle nagusiak Abrisketako San Pedro, Zumetzagako San Migel eta Bakioko San Pelaio dirala, eta horrek esan gura dau, garrantzi handia euki ebala inguru honek sasoi ilun eta gogor hareetan. Kontuan hartu XII. gizaldia zana, eta oraindikarren baserria, guk ezagutzen dogun eran, ez egoana.

- Ez da arkitekturan jakituna izan behar, San Pelaiok eta Zumetzagako San Migelek antza handia daukena ikusteko, batez be, euren harrizko sendotasun parebakoan, sartu-kerako eta altara atzeko dekorazioan. Behar bada, hargin eta behargin eurok eregiko ebezan biak.



- Beste alde batetik, jakitunek dinoenetik, San

Pelaio eregi ei zan Gaztelugatxeko San Joanera joateak ekarten eban nekeagaitik. Halan da ze, Gaztelugatxe lotu zan gotorleku edo fraileen eremutoki izateko eta eleizkizunak, gehienbat, San Pelaion egiten ebezan.


- Garrantzizkoa da be, Santiagoko Bide ospetsuaren itsasaldeko adarretariko bat hemendik igaroten zala. Sasoi hare-etako erromesek Gaztelugatxeko eremutokian hartzen eben atsedena.

- Guzti hau kontuan hartuta, ikusten da, geuk bere, herri txiker izan arren, historia euki badaukaguna, eta hori gozatu eta jagon beharko geunkela, gure atzekoek jaso daien, guk geure aurrekoengandik hartu doguna.


Unai BEITIA



Joana eta Oraina baserri munduan



JAUREGIZARRA (Dxeurisarre) aurretik



JAUREGIZARRA (Dxeurisarre) atzetik

Gaur egun, lugintza mundua, euskal etnia eta hizkuntzeari lotuta, euskal munduaren euskarria da. Euskal Herrian lugintza edo baserri mundua aztertzea, bada, leba handikoa da. Bai baserria, bai bertako familia eta tradizioa, euskal tradizioa. Baserriaren bizitza historian zehar, hatan be.

Historiaurre sasoian (K.a. 3000-2000) abelazkuntzan erabilitako euskal berbak erabiltzen doguz gaur egun be. Danak «hatx» errodonak (hatxa eta harria), esaterako: azkora, atxur, azkon, aztaga, aitzo,... Historiaurreko giza taldeei **gens** izena emoten jake. Gens ezbardinon arte-tik leinuak sortu ziran.

Emakumeak garrantzi handia eukan orduko euskal kulturari. **Mari**-ren euskal mitoa lehengo ama tribalen mitifikazioa izan leiteke. Orduko gens horreetako luginentzako ama ze leba handikoa zan, azaldu leike aurrean esandakoak. Bardin, **Basa-jaun**-en mitifikazioa ehiztarien gomutagarri izan leiteke.

Historia igaro ahalean, lugintza eta abelazkuntzeak ehizagintzeari aurre egin eutsoen eta, ondorenez, leinuak eta euron herritxuak mendietan ez eze, haranetan be kokatu ziran.

X. eta XI. gizaldietan, feudalismoa eta kritauntasuna zabaldu ziran euskal lurraldean. Lugin zein herritar apalek jauntxu edo handikientzako egiten eben behar. Feudalizazioa eta merkatuak izan ziran buruzagiak agertzeko oinarriak, buruzagiok inoren kontura gero eta gehiago aberasten zirala. Patriarkalizazioa jaio zan, bada, euskal gizartean. Hortik sortu ziran, sortu be, **Ahaide Nagusiak** eta euren arteko gudak eta burruka odoltsuak.

XII. gizalditik XVI. gizaldira bitartean, luginak herritxueta bizi ziran, Ahaide Nagusien Torretxeen inguruan batuta. Luginak euren landu beharreko lurren banaketan hartu eben esku. Ahaide Nagusiaren ondorengoak familiaren orubeari lotuta egozan eta bertan jauregia eregiko eben. Ahaide Nagusiak odolaren bitartez egon ziran lotuta lugini. Izatez, eurok be luginak ziran. Besteak baino aberatsagoak,

zorribiztuak, izan be. Jauntxuak jaio ziran. Luginek, jauntxu horreen lurretan behar egiten eben lez, zergea ordaintzen eutseen haren errotea edo burdinolea erabili gura izan ezkerroan.

XIV. gizaldian Ahaide Nagusien arteko burrukak ixetu ziran, zergak igoteko, aurki. Ahaide bakotzak besteak baino ahalmentsuago gura izan. Gizon sail edo bandoetan eratu ziran, aberatsago izateko, barbarako: ganboatarrak eta oñaztarrak. Bakio oñaztarren alderdian egoan.

XV. gizalditik XVI. gizaldira, Ahaide Nagusiak indargetuta eta zordun zirala, etxaguntza txikietan banandu ziran haren lur guztiak. Aldaketa handia, bada, euskal basartean. Etxaguntzea familian lehenengo jaiotako umeak eukan lehenasunean datza, oinordekotzan, hatan be. Nafarroako legetan batuta egoan ekandu zaharra zan. Etxeko ondasun guztia, zatitu barik, lehenengo jaiotakoaren eskuetan lotzen zan. Oinordekoa bera izaten zan.

XVIII. gizaldian, Ilustrazinoko ingurukoek gogor ekin eben euskal lege zahar haren aurka, baina XIX. gizaldira arte ezin izan eben lege ha indargetu.

Feudalizazioaren amaiezagaz batera, luginek jauntxuen herri txuak itzi eta mendian zehar zabaldu ziran, baserri bakartuak eratuz. XVII. gizaldiaren hasieran, lugintzea sano egonkorra izan zan. Antxinako Ahaide Nagusiek, jauntxuen oligarkia bihurtuta eta merkataria moderno lez eratuta, etxaguntzearen lurak errentan emoten eutseezan lugin edo baserriarrei. Errenta hori gurasoakandik seme-alabakana oinordekotasun eran igaroten zan familia barruan. Familiok gune autohornitzaileak ziran. Lurrak, baina, seme-alaba guztien artean bananduteko erarik ez egoan, lurrok errentan euki ahal izateko, jakina. Halan da ze, lehe-



JAUREGI (Dxeuri)

nengo semea edo alabea izaten zan oinordekoa. Osterantzeko seme-alabek eleiztar sartu edo Espainia zein Ameriketara joan behar.

XVIII. gizaldian teknika barriak heldu ziran lugintza mundura: mekanizazioa, arintasuna, abere eta behargin gitxiagoren beharizana.

XIX. gizaldira arte, bada, jauntxuak lurren errenten bidez irabazitakoei esker bizi ziran. Baina gizaldi horren hasieran **Kapitalismoa** jaio eta egoera hori aldatuz joan zan. Baserriarrek baserria itzi eta urietara jotzen eben, bertan behar egin eta soldatea irabazteko. Hori dala eta, ogibide barriak agertu ziran. Luginetik ez eben euren buruarentzako behar egiten, euren eskubeharra kapitalistei salduten eutseen soldata baten truke.

XX. gizaldiko azkenengo gudatik hona, baserri mundua aurbeheran joan da. Bizimodua aurrera atarateko bestekoa izatetik baserri asko be asko hutsik lotzeragino. Baserri mundua ez da, gaur egun, orokorrean esanda, bizimodua atarateko biderik aukeratuena. Baina, baserria hor dago egon eta urte askotarako.

Ainara MADARIAGA
(laburtu eta egokituta)

BERBALAPIKOA

lugintza= nekazaritza.
euskarri= oinarri, eustazpi.
leba= garrantzi.
hatan be= hain zuzen be.
abelazkuntza= abereen hazkuntzea.
azkon= gezi, dardo.
aztaga= lantza.
leinu= tribu, askazi.
lugin= baserriar, nekazari.
ehiztari= ehizan egiten dauana.
gomutagarri= oroigarri, gogoragarri.
ahaide= senitarteko.
orube= lursail, etxalde.
eregi= eraiki, egin.
zorribiztu= arin aberasten dana.
zerga= errenta, tributu.
ixetu= biztu.
ahalmentsu= indartsu, ahaltu.
indargetu= indar barik, makal.
etxaguntza= etxejauntza.
oinordekotza= oinordeko izateko eskubidea.
ekandu= ohitura.
oinordeko= jaubegai.
egonkor= iraunkor, aldatatx.
halan da ze= beraz, bada.
aurbeheran= beherantzean, gainbeheran.

«Zelan etorri, halan joan.»



SABINA SANTANA ITURAIN

Raimundo Santana eta Agustina Iturainen alabea, orain 85 urte Sumusu baserrian jaio zan. Hamabi urtegaz On Blas Mungiako abadearenera hilabeterako, barria aurkitu arte edo, zerbiduten neskame joan zan. Urte osoko soldatea: lau mila hogerleko. Bertan 9 urte egin ostean, ama etxean bakarrik gelditu zala-eta, hareri lagunduten Sumusura bihurtu beharra izan eban. Geroago, Carlos Bilbao gizon zintzo eta beharginagaz ezkondu zan. On Juan Maria Markaidak, orduko abade jauna, eleizearen garbikuzia-eta egiteko inor ez ebala aurkituten ikusita, behar hori egiteko bere burua opetsi eutson Sabinak. Ordurik hona, 42 urte emon dauz Bakioko abadeari goiko eleizan lagunduten. Beraren zereginak, danetarikoak: ateak zabaldu, jantziak garbitu eta atondu, kanpaiak orduetan jo, kandelak biztu, eta abar...

42 URTE SERORA BAKION

TX: Aldakuntza handiak igarriko zenduzan zure bizialdi luze horretan Bakion, ezta?

SS: Bai. Bakio asko aldatu da, bai eleiza aldetik, baita herri aldetik be. Antxina, mezatara gehienak joaten ziran eta, gaur egun, zahar askok be itzi egin deutsoe mezatara etorteari. Ene Jaungoikoa! Batean, andra gizonak banandu egin dirala, bestean, gazteek darabilen bizimodua dala... Nora ete doa mundu hau? Herria, barriz, asko aldatu da eta hobarantza: etxe barri asko egin eta egiten, kaleak, argiak, autobusak ugariago eta edonorako... Udaldian, ostera, ezin eza-gutu be egin leiteke gure Bakio.

TX: Hainbeste urte abade inguruan egonda, estutasunen baten, abadearen faltearen baten, mezea emoteko beste be ikasiko zenduan, edo?

SS: Mezea emoteko beste ez, baina ze jantzi behar dan, abestiak, erantzunak eta holangoak bai.

TX: Esakera zaharra da: «mezamutila dana, barrabana». Zuk zeuk be, mezamutilen okerkeriak eta barrabaskeriak noz edo noz egingo zenduzan, berbarako, dirua otzaratik hartu, ardaoa edan eta hola-koak.

SS: Ez, holangorik ez! Holangorik burura etorri be ez! Neuk eleizako diruei ukutu? Eleizako diruak sakratuak dira. Ardaorik, barriz, ez dot etxean be inoz edaten.

TX: Hainbat abade ezagutuko zenduzan. Nor zuretzat abaderik jatorrena?

SS: Niretzat abade guztiak onak izan dira. Niri danak esan deuste ondo. Uste dot, neuk be eurei ondo esango neutsela.

TX: Zein, zure ustean, beharrik eta gatzena, nekagarriena?

SS: Kanpaiak ondo jotea. Era askotariko kanpai joteak dagoz: albetakoak, aremarietakoak, gizonen hiletetakoak, andranak, aingeruenak, zapatu eta jai bezperetakoak, su kanpak, eta abar... Beharleku horretan Basigoko Maria Luisak lagunduten eustan. Harek bai kanpaiak jo! Berba eragiten deutse. Orain elektronikatura dagozan ezkerro, botoi bateri sakatutea nahikoa da.

TX: Zein izan da serora beharrean bizi dozun jazokerarik barregarriena?

SS: Hau ez da, ikusi ezean, sinistekoa. Umetxu baten bateoa zan. Euria goitik behera parra-parra. Han etozan eleizara etxeoak, ordu-orduan heldu ezinik. Bateo ponte aurrean umea agertuterakoan, ene!, aterkinak hartu bai, baina umerik ez. Umea etxean ahaztu. Ume bila atzera joan behar eta handik ordu erdira edo, euron lotsagarriz eta besteon barregarritz, umeagaz agertu ziran.

TX: Horrenbestekorik ez, baina, entzungo zeuntsezan esamesak abadeei sakristian, ezta?

SS: Abadeak, umeen dotrinea amaitu ostean, sakristian alkartuten ziran euren gorabeherak batak besteari esateko. Behinola baten, barre-

zantzoka etorri zan hareetariko abade bat umetxu bategaz jazotakoa beste abadeari azaldutera. Umetxu batek itaun hau egin eutson: «Jauna, zenbat Jaungoiko dagoz?» Bat dagoala entzutean umeak zirautson: «Beheko eleizan badago Jaungoikorik?». «Bai», erantzun eutson abadeak. Eta umeak, bete-betea: «Orduan bi dagoz: bat goiko eleizan eta bestea beheko eleizan». Gaur, umetxu zuher ha gizon handia da.

TX: Eskerrik asko, Sabina, eta beste batera arte.

Sabina, irribarretxua eginda, barriro be Sumusu baserrian ezkutatatu zan, Bakiok egin dauazan aldakuntzak hausnartu guran edo.

Jon Aingeru GOIKOETXEA

BERBALAPIKOA

serora= eleizako ardurea dauan andrea.

garbikuzi= garbiketa.

opetsi= eskaini, agintzaria egin.

atondu= eran imini.

mezamutil= mezan abadeari lagunduten deutsona.

kanpa= dangada, joaldi.

beharlehu= eginkizun, zeregin.

jazokera= gertaera.

bateo ponte= bateo harri.

esamesa= zeresan, kontu.

jazo= gertatu, pasatu.

zirautson= esan eutson. (irautsi)

hausnartu= pentsatu, gogoan erabili.

NON SARTUKO ZINTZAKEZ ATE HORRETATIK BARRURA?



Erantzuna badakizu, ekarri ahalik arinen KULTUR ETXera. Epea bagilaren 30an amaituko jatzu. Itzi zeure izena eta telefono zenbakia.

Erantzuna igarriko dabenen artean hurrengo sari hau zotzetan egingo dogu:

Lagun birentzako afaria TXOBERNE tabernan

Arteragokoaren erantzun zuzena:
«Basigoko ELEXPURU
jauregia»

Irabazlea:

Iraide Ormaza

Amen dozuez Iraide ORMAZA eta beraren laguna TXOBERNE tabernan afaria mauka-mauka jaten.



ZUHUR IBILI
maiatza 2000

TXOBERNE

Berton-bertokoa gozaturteko
leku aproposa
Bakioko txakolina, sagardaoa
eta jateko giro ezin hobiauan

Tfno.-zkia.: 94 619 41 81

TX-31


27

WAP teknologia

komunikazinoen harian

Azken hiru urteotan Internetek eta sakelako telefonoek bakotzak beraren aldetik eukitako gorakada itzela bizi izan dogu. Honen ostean, bigarren oinkada logikoa dator: sakelako telefonoetatik Internet erabilteko aukerea eta honegaz batera norberaren agenda, posta elektronikoa eta antzekoak be telefonotik kudeatzekoa. Hau guztiau WAP teknologiaren eskutik dator, baina joan dan urtetik aurrera teknologia hau erabilten daben telefonoak merkatuan egon arren, oraindino ez dago abiadura egokidun loturarik.

Gaur egun egiten diran sakelako telefono guztiek dauke teknologia hau eta igazko amaieratik dagoz merkatuan WAP teknologia erabilten daben sakelako telefonoak. Dana dala, euren unea oraintxe heldu bada be, daborduko argi ikusten da aurtengo urtearen amaierarako merkatua holango telefonoz ganezka egongo dana. Telefono honeetatik Internetera lotu ahal izango dogu eta holan gure telefono arruntetik Internetek eskaintzen dauazan zerbitzuez baliatu. Orain arte erabilten zan SMSren bidez hainbat aukera euki doguz: barriak irakurri, burtsako kotizazioak jaso,



eguraldi aurreikuspenak ikusi, etab. Hemendik aurrera bestelango aukerak eukiko doguz, batez be merkataritza elektronikoko eta jokoetarako aukerak.


CEBIT 2000


Zezeilean Hannover-en egindako CEBIT 2000 informatika azoka garrantzitsuan WAP teknologia dauken sakelako telefonoak izan dira nagusi. Bertan, teknologia erabilten daben enpresarik handienek euren produktuen eskaintza zein izango dan aurkeztu dabe. Gauza jakina da sakelako telefonoaren pantailan ezin izango dana Web-gune arrunta ikusi, baina horretarako hasi dira etxe handiak Web-gune berezituak sortzen eta oraingo Web-gunerik garrantzitsuenakaz itunak izenpetzen, sakelako telefonoak sareari lotzeko be egokitu daiezan. Esate baterako, Nokia etxeak Amazon-egaz egindako itunaren nondik norakoak azaldu ebazan. Halan

bada, etxe horren telefonoen erabiltzaileek liburu, disko eta antzekoak telefonotik erosteko aukerea eukiko dabe. Motorolak, ostera, telefonoz lotzeko Internetean berezko ataria sortzeko asmoa dauka, Amazon eta Digital Bridges jokoan guneakaz be itunak eginez.

Arazoa, barriz, beste bat da. Teknologia garatuta egon arren, telefonora sarbidea eskaintzen daben zerbitzaririk gehienek oraindino ez dabez euren sareak egokitu era honetako zerbitzuak opetsi ahal izateko eta oso gitxi izango dira urte honen amaierera baino lehen zerbitzu hori eskaintzeko gauza izango diranak. Era berean, daborduko zerbitzua emoten dabenek oso abiadura apala dauke. Datorren urtera arte itxaron beharko dogu, bada, Interneta gure sakelako telefonon euki ahal izateko.

Josu Waliño
Elhuyar aldizkaritik





ZAHARRAK BARRI



Uste dot ez dala begi zorrotzegirik behar argazki honeen arteko urte aldeaz konturatu-teko. Osterantzean, argazki bakoitzean agertuten dan autoari begiratu baino ez daukatzue: **zelango aldea, gero!**

Igarriko zenduen lez, **PORTUONDO** base-riaren ingurua dogu ikusgai oraingo honetan. Inguru hareri izena emoten deutson etxeak hor badirau be, **PORTUONDO BIGARRENA**ren faltea sano igar-ten da argazki barrian. Argazkiko aureko etxeak, Etxezuriren aurrez aurre dagoan aldetxea, baina, hor be badirau oraindikarren.

Bidean zein horman egindako aldaketak albo baten itzita, konturatuko zintzazen daborduko, zugatzak ahor dagozana, atzo zein gaur, sendo, zindo, bizirik.

Azken baten, honeek dira bada izan, gure Bakio urte zein gizaldietan zehar aldatuten ikusi, ikusten eta ikusiko daben izaki bizidun bakarrak. Berba egiterik eukiko balebe...

Anartz ORMAZA

ZAHARRAK BARRI
maiatza 2000

«Lapiko hutsak, zarata handia.»

TX-31

29


Barri Laburrak

GEHIAGO BIRZIKLATZEAK EZ EI DAKAR USTE DAN HAINBESTEKO ONURA EKOLOGIKORIK

Holandako TNO ikerketa zientifikorako institutuak eginiko ikerketeak honakoa adierazi dau: gaur egun erabilten diran birziklatze tekniken bidez plastikozko ontzien %15 baino gehiago birziklatzea ekologikoki ez dala onuragarria. Europako Plastikogileen Alkartean (APME) eskatutako ikerketearen arabera, birziklapen tasea %15etik %50eragino gehiagotzeak kostuak %300ean handiagotuko leukez eta onura ekologikoak sano mugatuak izango litzatekez. Onuragarritasun ekologikoa lortzeko bideak etxetako hondakinetatik eratorritako energiari etekin handiagoa ataratea eta birziklatze mekanikoa bultzatzea dira. Bestetik, industrian sortzen diran plastikozko hondakinak birziklatzeko ahalegin handiagoa egin beharko litzatekela dino APMEk.

BEIREA BE KAMALEOIA DA

Alemaniko Dresden uriko banku batek lehenengoz erabili dauz argi intentsitatearen arabera gardentasuna aldatzen jakon beirazko leihoak. Egindako saiakuntzek material hori eraikinak girotzeko beharrezko izan ohi dan energiaren %50 aurrezteko bidea dala adierazo dabe. Beirearen ganazalean wolframio oxidozko geruza mehea itsatsita dago eta geruzatik zehar pasetan dan intentsitate txikiko elektrizitate-indarrak mintzaren margoari aldatu eragiten deutso. Halan bada, beira gardena urdin bihurtzen da. Kaletik datorren argiaren intentsitatea oso handia danean, beireak gardentasuna galdu eta eraikina fresko eukiteko aire girotu gitxiago behar dan lez, energia aurrezten da. Argiaren intentsitatea txikiagotzen danean, ostera, beireak hasikerako gardentasuna birreskuratzen dau eta argi artifizialen beharrezana txikiagoa da. Eraikin osoko leihoetako beirearen gardentasuna era zentralizatuan kontrolatu leiteke.



ZENBATGURA ANTIBIOTIKO

Europako Batasunean 10.000 tona antibiotiko erabilten dira urtean-urtean eta kopuru horren erdia abereentzat izaten da. Antibiotiko batzuk ez dira guztiz hondatzen gorputzean zehar igarotakoan eta hondakin uren sistemetara pasetan dira, edo lurrazalean pilatu leitekez landetxeetako gorotzakaz batera erreketara heldu arte. Batzuen eritxiz, lurrazalean eta uretan pilatutako antibiotiko horreek eragin dabe gaixotasun batzuk

antibiotikoei deutseen erresistentzia garatzeko. Edozelan be, ez dago ingurualdera isuritako antibiotiko kopurua mugatzen dauan ezelango legerik, ez estatu mailakorik ez eta nazionalartekorik be. Nazino Batuek esan daben bakarria hau da: landetxeko hektarea bakoitxeko 7,5 gramo antibiotikotik gora pilatuta badago, ingurune eraginaren ganeko azterketea egin behar dala. Orain dala gitxi, ostera, muga hori 75 gramoragino igon dabe. Albaitari eta zientzialari guztiak ez datoz, jakina, igokera horregaz bat. Ikerketa gitxi egin da, ganera. Estatu Batuek aurkeztutako ikerketeak, esaterako, ez eban antibiotikoakazko erresistentziaren garapena beraren barruan hartzen. Baina, horren argigarririk euki ez arren, susmo txarra hortxe dago.



ANDRAZKOEK GIZON GOITIAK GURAGO

Andrazkoek gizon goitiak (altuak) gurago dabezala aditzera emon dau Robin Dunbar psikologo eboluzionistak Poloniako Wroclaw urian egindako ikerketearen arabera. Eboluzinoak eta aukeraketa naturalak abereengan ez eze, gizakion jardura sozial eta sexuarean be eragina daukela erakutsi gura dau Robin Dunbarrek eta, horretarako, 25 eta 60 urte bitarteko 4.400 gizonetzko osasuntsuren goierea (altuerea) eta izandako ume kopurua alderatu dauz. Holan, umerik ez euken gizonetzkoak umeak eukezanak baino txikiagoak zirana ikusi eban. Ikertzailearen ustez, goiherearen agirik eragina ez da bakarrik gure gizartearen edertasun ezaugarrien ondorioa. Andrazkoek gizonetzko goitiak gurago badabez, sasoi baten goitia izatea gene hobeak eta bizirik irauteko aukera gehiago eukiteagaz lotuta egoalako da.



Beste ikerketa batzuk lar goitia izatea be ez dala erakargarria adierazo dabe, eta, horregaitik, gizonetzko eta andrazkoen goiera ezbardintasuna ez dala gizaldirik gizaldi handitu. Itxuraz bitxikeria izan leitekezan ikerketek oinarri mamintsua dauke: izaki arrazoidunak izan arren, aukeraketa naturalak guregan be eragina daukela egiaztatzeko asmoak eta ustez gizartekoak baino ez litzatekezan edertasun ezaugarrien atzean zer edo zer gehiago badagoela aditzera emoteko asmoak bultzatzen dabez ikerketa horreek.

TABERNAZAR

Danok ezagututen dogu baserri hori, ondo ezagutu be. Bakioko baserririk zaharrenetarikoa ei da, zaharrena ez bada, Bera ikustea baino ez dago, gaur egun egoera tamalgarrian egon arren.

Orain lau-bost gizaldikoa baleiteke be, ezin jakin beraren barri harik eta XVIII. gizaldira arte, hasikerako sasoiaren barri txistik be ez dakigula. Igarriko zenduen lez, eta zuotariko batzuk jakin be, TABERNAZAR izenak dinosku tabernea izan zala, herriko tabernea. XVIII. gizaldiaren amaieran, «Arestiren Tabernea» lez ezagututen ei eben. Baina herriko tabernea (udalarena) izan eta eskurik esku aldatuz joian ezkerro, errentan emoten zalako, izena be aldatuz joan ekion.

XIX. gizaldian «Alegriaren Tabernea» lez ezagututen eben. Sasoi hareetan Markos Elgezabalek eukan errentan hartuta. Orduan be, herriko ardandegia zan, paitarra, ardao zuria, txakolina eta edari alkoholodunak salduteko baimena eukan bakarra, hatan be.

Baina ez zan taberna hutsa, ez. Ostatua be bazan, kanpotarrentzako aterpetxea. Boletan egiteko bolatokia be alboan egoan, bola bi eta bederatzi txirlo eukazana. Horrez ganera, bertan gordetan ziran herriko pisu eta neurriak. Hori holan bazan, beti euki behar ebezan 100eko pisu bat, 50eko beste bat, 40ko hiru, 5, 4, 3, 2 eta 1eko hogeitabost eta 1/2ko hamar. Pitxerdiko neurri bat egoan, pinterdiko beste bat (litro erdi) eta txetxuko beste bat (litro laurden). Behar-beharrezkoa ziran be onila, 12 pitxer eta 12 edontzi.

Tabernearen ustiapena eta edarien erantzukizuna agiriko errematean emoten ziran. Labur-labur esanda, holan egiten zan: kandela bat biztuten zan eta horrek biztuta irauan artean egin eitekezan nork gehiagoak. Azkenengoak irabazten eban.

Horreetariko nork gehiago bakotxak erreal bat balio eban. Lehiak eragindako artegatasuna azkenengo unera arte egoten zan. Halantxe, bada, beragandu eban Markos Elge-

izaten jarraitu eban, guk geuk TABERNAZAR hutsik, jausita eta arrakalatuta ezagutu dogun arren.

Anartz ORMAZA



zabalek TABERNAZAR baserria, 100 erreal hilean-hilean ordainduta, jakina.

Baina ez eban, ez, arazo gitxi euki tabernea zala eta ez zala. Orduko sasoiaren, karlistadea aurrera eta atzera ebulan. Bakiok hainbat diru, milaka eta milaka erreal emon behar izan eutsozan alderdi karlisteari. Baina, eta nondik atara harenbesteko diru mardoa? Bada, dirutsu ziran lagun batzuei esaktu behar izan eutseen, euren artean Markos Elgezabaleri. Karlistek, baina, gudea galdu eben eta Bakio diru barik eta zorretan leporagino lotu zan. Markos Elgezabal tabernariari 10.000 errealetik gorā zor eutsoezan. Eta hainbat ta hainbat diru beste batzuei be. Zorrak ordainduteko galazoa egoan, aldundiak halan aginduta. Irabaziak eta arerioak izan ziran eta. Bakio miseria gorrian egoan.

Baina, gitxika-gitxika urten eban zulo baltzetik eta taberneak taberna

Berbalapikoa

tamalgarri= negargarri, penagarri.

gizaldi= mende.

ardandegi= taberna.

paitarra= likore, edari bizi.

baimen= onespén, lizentzia.

txirlo= boletan jo eta bota behar dana.

pitxerdi= litro bat baino apur bat gehiago.

pinterdi= litro erdi.

txetxuko= litro laurden.

onil= inbutu.

pitxer= edateko edo neurtuteko ontzia.

ustiapen= diru edo onura atarate.

erremate= enkante.

lehia= norgehiagoka, dema.

artegatasun= urduritasun, emozino.

galazo= debeku.

arerio= etsai.

Jakingo dozuen lez, joan dan jorrailean Bakion izan dira futboleko goi mailako entrenatzaile bi: Claudio Ranieri, aurten Athletico de Madrid taldean ibilitakoa, eta danok ezagututen dogun Luis Fernández, hatan be. Etorrera hori aprobe txatuz, itaun batzuk egin geuntsezan TXIRRITXOLAKo *pararazziok* eta ahor dozuez erantzunak.



CLAUDIO RANIERI eta LUIS FERNANDEZ BAKION

CLAUDIO RANIERI

TX: Zer deritxozu Bakiori zeure lehenengo ikustaldi honetan?

CR: Oso ondo, oso ondo. Izadia itzel dago-eta. Bai mendiak, bai zugatzak eta bai haretzea be oso politak dira. Ganera, hiru egun eguzkitsu euki doguz eta

gogoko-gogoko izan dot dana.

TX: Txastatu ete dozu txakolinik?

CR: Bai, gogoko izan dot. Ez naz edale on-ona baina gustatu jat. Usain ona dauka eta oso ardao berezia da, baina on-ona.

TX: Entrenatzailearen

bizitza begitanduten jakun besteko bakartia da, ala?

CR: Bai, beti da bakartia, ze entrenatzailea pertsona bakarra da eta gure bizitza halangoa izaten da. Irabazten badau, emoten dau jende piloa dauaula alboan. Galduten dau eta desagertu egiten dira, eta, orduan, bakarrik lotuten da beraren mutilakaz.

Orduan ahaleginduten da norbera gauzak hobeto egiten, taldea ahalik eta goragoen eroaten. Tituluak irabazteko ordainduten deutsoe-eta norberari. Azkenean, hori da gauzarik garrantzitsuena.

TX: Badaukazu leku bereziren bat une latzetan babesteko?

CR: Neure senide artean,

jakina. Neure senideakaz nagoanean, eurek emoten deustezalako berotasuna, orekea, indarra, arnasea aurrera egiteko.

TX: Sentidu izan zara sarritan bakarrik?

CR: Zorionez, ideiak argi daukazan gizona naz. Badakit gaur lortuten dodana bihar hilda egon leitekena eta behar handia egin behar dana zeozer lortuteko. Orduan, badakit bizitzea burpil baten modukoa dana: une onak eta txarrak dagoz. Ni beti ahaleginduten naz egunean egoten, beti mugituten, bihar zer hobetu leiteken pentsetan.

TX: Zelan deskribatuko zeunke aurten Athletico de Madrid-ek bizi izan dauan egoerea?

CR: Guztiz barria. Ez neban inoz holango egoerarik bizi. Eta esan behar dot, nire futbolari sasoian Siziliako Mafiak lehendakaria erahil euskula. Valentzian nengoanean, lehendakariak dimitidu egin behar izan eban. Halan da ze, gauza asko bizi izan dodaz bai Italian eta bai Espainian. Baina Gil kendu ebenean, kluba buru



barik lotu zan eta hori itzela izan zan, ez nigaitik, ze entrenatzaileok badakigu gure burua bakarrik konponduten, jokalaria-kaitik baino. Jokalariak ez ekien zer egin eta euren ordezkariak beste klub batera joateko esaten ibili ziran, eta guzti hori. Gaur eguneko futboleantzen mentalizazioa oso garrantzitsua da eta, horregaitik, asteko egun guztiak hurrengo partidurako garrantzitsuak dira. Eta zer jazoten zan? Bada, horretaz berba egin beharrean beste arazo haretaz egiten zala berba. Han bizi izan dodana negargarria izan da. Pozik

nago orain, Gil atzera etorri dalako. Ez dakit kluba aurrera atarako dauan baina, hori miraria izango litzateke eta.

TX: Izan da hau zure kirol bizitzako urterik txarrena?

CR: Ez, ez, beti dagoz une onak eta txarrak. Ez da txarrena izan, ez, entrenetan hasi nintzan lehenengo urte bietan neu joan nintzan kanpora lehenengo denboraldian, taldea taulan lehenengo lekuan itzita. Neu joan nintzan, ze ez nentorren lehendakariagaz bat eta Gabonak baino lehenago joan egin

nintzan. Bigarren urte hatan bota egin nintzen, arazo handiakaz hasi nintzalako. Orduan, gauza guzti hareek gogortu egin nintzen. Badakit urte baten jaun ta jaubea izan neintekena, eta bestean astoa. Horregaitik esaten dot garaipena eta galtzea guzurti bi dirala.

TX: Zer deritoxozu Espainiako Ligeari?

CR: Ona, ona, apur bat arraroa, baina ona. Uste dot orain urte batzuk Italian jazo zana jazoten dala orain Espainiako Ligan. Hau da, lehen Italian Juventus, Milan eta Inter baino ez ziran ligea irabazteko gauza eta orain zazpi talde inguru dagoz hori lortuteko aukerea daukenak. Orain Espainiako Ligan antzeko zeozer jazoten da, Deportivo dago hor aurrean eta hori beti da ona alkarlehia handiagotuteko.

TX: Espainiako Ligako talderik handien artean kokatuko zeunke Athletic?



CR: Jakina, baietz. Luisek behar handia egin dau. Aurten, gauzak ez joakoz hain ondo. Baina hor goian imini behar da eta azpimarratu behar da, bertoko jendea baino ez dagoala. Hori meritu handia da. Zorionak Luis!, esan behar da.

TX: **Tituluren bat irabazteko gauza ikusten dozu Athletic?**

CR: Hori dagozan jokalarien arabera da. Une baten jokalaria onak badagoz taldean eta, aldi beratan, entrenatzaile ona badauke, talde horrek irabazi egingo dau. Baina jokalaria on barik entrenatzaile batek ezin dau miraririk egin.

TX: **Gustatuko litzakizu Athletic entrenatzea?**

CR: Jakina. Zergaitik ez? Erromantizismoagaitik. Norberaren herriko koloareak norbera defendiduten dagoala esateak emoten dauan indarragaitik, guztiagaitik.

LUIS FERNÁNDEZ

TX: **Itsasoari begira ikusi zaitut lehen. Leku egokia da momentu latzetan babesteko?**

LF: Jazoten dana da, ni itsaso ondoan jaioa nazala, Tarifan, eta Tarifak itsaso bi daukaz: Atlantikoa eta Mediterraneo. Halan da ze, itsasoa zeozer da niretzat. Itsasoari begiratzek norbera laxutu egiten dau-eta.

TX: **Athletic iztea erabagi zenduanetik tristezia igarten jatzu. Mindu egiten deutsu horrelan joan beharriateak?**

LF: Jakina, min egiten deustana. Ni bosgarren urtean iztea neban helburu eta aldi hori amaitu barik ez neban joan gura. Baina lehendakariagaz berba egin eta gero, erabagia hartuteko unerik egokiena zana ikusi genduan. Bertilun nago, oso bihozbera nazalako. Ez nazalako mertzenario lakoa, eta jendeak pentsetan dauanak arduratu egiten naualako. Nireganako eritxia aldatu dabenek mindu egin nabe

eta nik, barriz, ez dot eurenganakoa aldatu.

TX: **Zelan dago zure sendia? Kostatu egingo jake, batez be, zure seme-alabei herri hau iztea?**

LF: Gure sendia hona etorri ostean, emaztea ez zan ondo-ondo honetara egiten eta, gaur egun, ondo konponduten da berton. Seme-alabek ondo be ondo bertokotu dira. Athletic-zaleak dodaz, emaztea be bai. San Mames-era joaten dira eta nik uste dot hemen bizitzeak ondo egin deustela. Ganera, emazteak beti aitatu izan dauz hemengo bizi kalitatea eta jendearen izakera ona. Herri honetaz esaten dana ez da, gero, berton bizi ostean, esan leiteken gauza bardina. Ondo bizi da berton eta lurralde ona da behar egin eta gauzak ondo egiten ahaleginteko.

TX: **Zelan deskribatuko zeunke San Mames eta bearen zalegoa?**

LF: Tira ba, ez da kanpoko zalegoen modukoa: zaratatsua edo bertan bakarrik

egoten dana. Sentimenduan datza ezbardintasuna. Nik San Mames-en gau handi asko bizi izan dodaz, Zaragozarena, berbarako. Zalegoa handia da Turin-era edo Birmingham-era doatzunean. Taldeak laguntza behar dauan partiduetan emoten dauan, eta asko ulertuten dauan zalegoa da San Mames-ekoa, jakin dakiana. Zelan definituko neukela? Bada, besteetatik ezbardina dan zalegoa, noz lagundu eta noz laxutu behar dan dakiana.

TX: **Esan dozu inoz Athletic-eko bazkide izan gura dozula. Badago zure gurarien artean noz edo noz zure semeetarikoren batek taldean olgetea?**

LF: Bada, ahal badau, Romanek, txikiak. Futboleak olgetan dau. Profesionala izan eta Athletic-en olgetako aukerarik baleuka, kontuan hartu beharko leukee lau urtean beheko mailetan olgatu izan dauala, eta onartu egingo leukee, beharbada. Bazkide izateko eskatu dot baina errenkadan itxarongo dot beste guztien moduan. Baina, bazkide izateko gurari horrek erango nau Europa guztian esatera Espainiako Ligan Athletic deritxon kluba dagoala, bera ezagutzeak merezi dauala, filosofia berezidun klub horren bazkide izatea oso gauza polita dala.

TX: **Athletic-entzat gurari bat?**

LF: Beste ehun urtez bizi daitela eta tituluak irabazi daiazala.

TX: **Eskerrik asko biori.**

Egoitz GARAI



BITXIKERIAK

TANPOIAK ETA KONPRESAK, LUXUZKOAK?



HOTEL BAT IPINI GURA DABE MIR ESPAZIO ESTAZINOAN

Gure merkatuak ez dauka mugarik. Lurra txiki geratu jako aurki, eta orain espazioa bereganatu gura dau. Daborduko, Mir espazio estazinoa pribatua da, Errusiako Gobernuak enpresa buru estatubatuar batzuen esku itzi dau eta. MirCop enpresek espazio estazinoan hotel bat ipinteko asmoa agertu dau, baina oraindino ez dau zehaztu zenbat kostako dan gaua suite nagusian. Karua izango da, hori seguru, Mir hotelak Lur planetako hotel guztiek baino izar gehiago eukiko dau eta. Izarrak, ganera, benetakoak izango dira. Daborduko, apirilaren 3an, errusiar astronauta bi joan dira estazinora. Dana dala, errusiarrek oraindino ez dakie luzaroan egongo ete diran espazioan, MirCorp enpresek zehaztu ez daualako zenbat diru ipiniko dauan.

Antza danez, hainbat herrialdetan tanpoiak eta konpresak ez dira preminazko gaiak, luxuzkoak baino. Britainia Handiak, esaterako, %17,5eko zergea ezarten dau tanpoien ganean. Hego Euskal Herrian eta Espainian antzekoa da egoerea: hilekoa dauken andrazkoek %16ko BEZ ordaintzen dabe tanpoiak eta konpresak erosten dabezan guztietan. Jatetxeek, preserbatiboek, motorrek eta lorek, ostera, %7ko zergea dauke, aurki, konpresak eta tanpoiak baino preminazkoagoak diralako. Britainia Handian andrazkoak kexetan hasiak dira, eta Ogasun ministroak agindu dau konpresen eta tanpoien ganeko zergak nahiko txikituko dauazala. Gurean, barriz, aldarrikapen horrek ez dau zabalkunde handirik euki.



EAEK ISKILU UGARI SALTZEN DEUTSOZ TURKIARI

Euskal Autonomia Erkidegoko industriak 5.000 milioi pezeta esportetan dauz iskilu arinetan, inguruko herriek baino askoz gehiago. Erosleen artean giza eskubideak errespetetan ez dabezan gobernuak dagoz, barbarako, Turkia eta Indonesiakoa. Europako Batasunak gatazka armatuak daukezan herriei iskilurik ez saltzeko eskatu badau be, euskal enpresek ez deutsoe jaramonik be egin. Amnesty International, Greenpeace, Irtemon eta Mugabako Osagileak taldeek gogor salatu dabe iskilu saltzea, eta hori galazoteko eskatu deutsoe Eusko Legebiltzarrari.

BAKIOKO EUSKEREA-IX

Sarritan, galdu artean ez gara konturatuten etxean zer daukagun. Ahor, bada, bertoko euskerea. Askok uste leiken baino ederragoa eta aberatsagoa da. Jagon daigun !

Oharra: Era bitara dakarguz, esaterako,

- zelan idatzi behar dan: «diru-satsa dauka horrek»
- Bakion zelan esaten dan: «(diru-satza deko orrek)»

ESAPIDEAK

Bakioko euskerea esapidez josita dago. Esapideak erabilten doguz gauzak beste era batera esan eta adierazoteko. Esapideetan dagoz hizkuntza eta hizkuntza hori darabilan herriaren urte asko ta askotako jakituria, zorrotasun eta aberastasuna. Gure zaharrek esapidetan aberatsak izan dira eta badira oraindinokarren. Ikasi daitsegun esapideak eralbiten. Zuok be beste batzuk badakizuez, ekarri eiskuzuez. Ahor, bada, adibide batzuk.

- **Begiganekoa euki**= logura izan.

(begiganekoa oki)

Ogera joango naz, begiganekoa daukat eta.
(oire dxoango nas, begiganekoa dekot eta)

- **Diru-satsa euki**= diru asko ta asko euki.

(diru-satza oki)

Hori guztiori erosi dau, horrek diru-satsa dauka eta.
(ori gustidxori erosi deu, orrek diru-satza deko ta)

- **Edurrak behea loditu**= edurtza handia egin.

(edurrek beie loditxu)

Arteragoko zemendian edurrak Jatan behea loditu eban.
(arterauko semendidxen edurrek dxatan beie loditxu dxen)

- **Gaur goizekoa (ez) izan**= 1. barria (ez) izan / 2. koitadua (ez) izan.

(geur goisekoa es ixen)

Esan deuskuena ez da gaur goizekoa.
(esan doskuena esta geur goisekoa)

Josu ez da gaur goizekoa, badaki zer darabilan.
(dxosu esta geur goisekoa, baki ser dabillen)

- **Goian zerua eta behean lurra lotu**= ondasun guztiak galdu.

(goidxen serue ta beien lurre lotu)

Jokoan diru guztia galdu ostean, goian zerua eta behean lurra lotu zan.
(dxokoan diru gustidxe galdu ostien, goidxen serue ta beien lurre lotu sen)



- **Hatxa baino gogorragoa izan**= osasuntsua edo indartsua izan.
(*atxa baño gogorraua ixen*)

Ander hatxa baino gogorragoa dok.
(*ander atxa baño gogorraua dok*)

- **Inon ez diranak esan**= txakurkeriak esan.
(*iñon estirenak esan*)

Agirika egin eutson eta inon ez diranak esan be.
(*agirike eiñ'zon da iñon estirenak esan be*)

- **Lebarik (ez) euki**= 1. garrantzirik (ez) euki / 2. bardin izan.
(*lebarik es oki*)

Holan egiten badozu, ez dauka lebarik.
(*olan eitxen basu, esteko lebarik*)

Bihar ekarteak ez deust lebarik.
(*bidxer ekartiek estost lebarik*)

- **Popertzakoa (ez) izan**= gurataezkoa (ez) izan.
(*popertzakoa es ixen*)

Gauzak aholan egitea ez da popertzakoa.
(*gausek aulan eitxie esta popertzakoa*)

- **Taketa lez egon**= osasuntsu edo indartsu egon.
(*taketa les on*)

Txo! Hainbeste urte aldean eta taketa lez dabil, gero!
(*txo! ainbeste urte aldien da taketa les dabil, gero!*)

- **Usainik be ez euki**= antzik be ez euki.
(*usiñik pes oki*)

Soloko mailukiek usainik be ez dauke dendakoakaz.
(*soloko mallukidxek usiñik pes teke dendakoakas*)

- **Zurtz eginda itzi**= harrituta itzi, agozabalik itzi.
(*surtz eintxe itxi*)

Esan dauanak zurtz eginda itzi nau, gero!
(*esan deuenak surtz eintxe itxi neu, gero!*)

Iniaki MARTIARTU

POZORDU ETA MINORDU

-Ni zu baino luzeagoa naz, Pozordu?

-Luzeagoa?

-Bai.

-Ez zara.

-Banaz.

-Baina ez ete dakizu, Minordu, bardinak garana? Esakerea danez: ordua ordu.

-Bai baina...

-Bai baina..., zer?

-Esan, esan ea, gizakiei.

Mikel ZARATE



Bakioko Txistulari Taldea

Hurrengo lerrootan Bakioko txistulari taldeko kide dan Jon Uriartegaz euki dogun berbalditxuaren emoitzea daukazue. Ahor dozue, bada, talde hori ezagutzeko aukerea.



TX: Noztik zabilze txistulari talde lez eta zelan hasi zinen?

JU: Hirugarren urtea izango da hau. Beti ibili gara herriko jaietan kalerik kale jotzen, baina orain hiru urte batu ginan eta halantxe hasi ginan, apur bat, talde lez antolatuta.

TX: Zeintzuk dira zeuon helburu nagusiak?

JU: Gure helburu nagusia herrian txistua indartzea da. Ikusten dogu azken urteotan txistuak indarra galdu dauana herrian eta indar hori birreskuratzea da guretzako garrantzitsuena. Horregaitik ahalegintzen gara jai eta ekitaldirik gehienetan egoten, txistuaz jai giroa sortzen.

TX: Sasoirik gogorrena udaldia izango da, ezta?

JU: Ez pentsatu, nahiko zabaldua daukagu beharra urtean zehar. Baseleiza guztietara joaten gara euren ospakizunetan, hau da, San Martin, San Kristobal, Santa Katalina, San Esteban eta Santa Ursula baseleizetara. Hortik kanpo, herriko jai nagusi guztietan egoten gara, eta gero, deitzen deuskuen jai eta leku ezbardinetan be egoten gara, Euskera Egunean, esate baterako.

TX: Zelan ikusten dozu txistuaren osasuna herriko gazteen aldetik?

JU: Gazteekaz hasi ginan kalerik kale jotzen, baina horreetatik gehienek itzi egin deutsoe txistua joteari eta ez dago atzetik jarraipenik. Musika instrumenturen bat joteak ahalegina eskatzen dau eta ekin egin behar jako, ganera, uste dot txistuaren berotasun hori galdu egin dala gazteengan. Eta ganera, gaurko gazteek ekintza asko daukez parte hartzeko eta aukera horreen artean, antza, txistuak galtzen dau oraingoz.

TX: Emoten jako zeuen lanari garrantzirik herritarren aldetik?

JU: Bai, batzuk ikusten dabe zelan hor beharra eta ahalegina dagozana eta konturatzan dira holango ekimenak berez ez dirana egiten.

TX: Entzun edo ezagutu dozu zuk zeuk Bakioko txistulari zaharrik? Egon da inor?

JU: Nik bertokorik ez dot ezagutu. Lehenago, beti etorten ziran kanpokoak, Mungiaokoak edo. Bakion instrumentuak joteko baino abesteko tradizino handiagoa egon dala uste dot nik.

TX: Aurrerantzean, orduan, txistuaren egoereak hobara egin beharko dau, ezta?

JU: Bai, zalantza barik. Ea denporea eta beharraz zaletasunak gorantza egiten dauan, ze une honetan, nik ez dot ikusten txistuaren aldeko berotasunik. Herriarentzako be aberasgarri izango litzake txistulari gazteek jotzen segitzea, baina, ikusi egingo dogu...

Unai BEITIA

JATA-BIKE TXIRRINDULARITZA ALKARTEA

Jata-Bike Bakioko Txirrindularitza Alkartea errealitatea da daborduko. Bizkaiko Txirrindularitza Federakundeari behar dan eran lotuta dago eta, gaur egunean, 25 bazkide daukaz. Aurtongo 2.000 urterako helbururik nagusiena bazkide barriak lortzea dabe eta, zeozelan, esponsorren bat eukitea be bai, taldeak maillota euki daian.

Ekintzei buruz esan behar da, zera, Euskadiko Mountainbike Zirkuitoko Lehenengo Lehia eratu ebela, joan dan martiaren 12an. Arrakasta handiko lasterketea izan zan, bertan 163 eskuhartzaile egon zirala. Datorren maiatzerako Baikoko IV. Mountain-Bike Martxea eratu dabe, zehazto, hilaren 13an, eta hemen be aurreko urte bietako arrakastea lortzea itxaroten dabe.

ITXAS-ALDEren ganean

Apirilaren 16an batu ziran Arteagara Busturialdeko Dantzari Txikien Egunean. Datorren maiatzaren 7an, baina, Euskal Herriko Dantzari Eguna izango da Donostian, eta bertaratuko dira Itxas-Aldekook. Maiatzaren 21ean, barriz, Bizkaiko Dantzari Eguna egingo dabe Bilbon. Udarako, lehengo baten aitatu genduan lez, Eskozia eta Frantziatik talde bana etorriko jakuz Bakiora. Udarako, beste alde batetik, Oñateko Korpuseko eta Lesakako dantzak atonduten dabilz.

B.K.T.-ren barri

Ligea amaitzeko sei partidu lotzen diranean, Bakio Kirol Taldeak helburua bete dauala esan geinke: hamargarren tokian eta 36 puntugaz. Emoitzen aldetik, on-ona izan da taldeak egin dauan bigarren aldia. Horrez gan, Gatikan lortutako garaipena sano garrantzitsua izan zan taldearen martxeari sakatzeko.

Baina zoritxarrez, dana ez da ona izan, esaterako: Iker Renteriaren lesino larria, bernazurra eta peronea hausi jakozan; Borja atezaina eskuturreko lesinoagaz aspaldiko hiru hilabeteotan; Jokin be ia urte osoa olgatu barik, barriro kirofanotik igaroteko begira. Ea hurrengo denboraldirako danak olgetako prest dagozan.

Zuzendariak datorren urterako plangintzea egiten dabilz, aurtun lortutakoa, gitxienez, helburutzat hartuta. B.K.T. gorago ikusi behar dogu, aurtun gazteek ikasitakoa datorren urtean igarri beharko da eta fitxatuakaz aparetan badabe, taldea goian ibili leiteke.

Bakioko Abesbatza


Udabarriko kontzertuak jatorkuz laster. Herriko abesbatza-koek Zornotzako BRIOLETAK eta Zierbenako BERDANTZA abesbatzakoakaz batera hurrengo herrietan abestuko dabe: maiatzaren 6an Zierbenan, maiatzaren 3an Zornotzan, maiatzaren 27an Lekeition eta bagilaren 3an Bakion, bertan Bakioko Umeen Abesbatzak be abestuko dauala. Artean, bagilaren 4an Basaurin egingo dan Abesbatzen Egunean be izango dira abesbatzakoak. Eta ahaztu barik esan, urtero lez, datorren garagarriaren 17tik 23ra ohiko Musika Astea izango dogula herrian. (Begitu 8. orrialdean).

BAKIOKO LIBURUTEGIAREN TXOKOA



Liburuez gan, bertan euskeraz idatzitako aldizkariak be hartuten doguz. Txanda honetan, aldizkariotatik hiru aitatu deusueguz:

Lehenengoa, **ARGIA**. Euskal Herriko astekari honek gaur eguneko gai mamintsuak jorratuten dauz zazpi atal ezberdinetan: politikea, ekonomia, euskerea, gizarte, kulturea, astialdia eta eritxiak.



Bigarrena, **ELHUYAR** aldizkaria. Hilero helduten da liburutegira. Punta-puntako zientzia eta teknika daukaz iturburutzat.



Hirugarrena, **AIZU** aldizkaria dogu. Liburutegiko txokora heldu barria. AEKren euskaltegiek argitaratua. Euskera ikasleei zuzenduta dagoan ezker, artikulua arinak izateaz gan, hiztegi txiki bat be

Laurak-bat
Montevideo



ekarten dabe irakurketea erreztuteko asmotan. Beste aldetik, aitatu gura dogu Eusko Jaurlaritzak bialdutako azken liburua «**Laurak bat Montevideo 1876-1898: primera euskal etxea del mundo**», Euskal Herritik kanpo izan diran euskaldunen bizitzea gogoratuteko.

**Liburu eta aldizkari honeek
Kultur Etxeko
liburutegian irakurgai daukazuz.
Erdi gurera!**

ONDO EGINAK ZER MEREZI DAUAN

(R.M. Azkueren ipuina)

Otsoa, harri handi batek azpian hartuta, urten ezinik arnasoska egoan. Gizon bat beraren ondoan igaro zan.

- «Atara naik hemendik, laguna, atara naik» -zirautson otsoak.
- «Baina hik jan egingo nok eta hoba joat nik bakea.»
- «Ez, ez haut jango eta atara naik.»

Gizon harek, azkenean, otsoa harripetik atara eban. Otsoak orduan:

- «Gosea danak jan egin behar jok eta oraintxe jan behar haut.»
- «Ez deustak esan ba, jan barik itziko ninduzula?»
- «Esan bai, baina gose danak jan behar jok eta...»
- «Hona ba, otsoko: bidez bat egin daiguzan hiruren burubidea jarraitu daigun. Ondo eginak txarto merezi dauala badinoe, jan naik orduantxe.»

Badoaz, badoaz, badoaz ta bide ondoan txakurra aurkitu eben, oztan-oztan ebilen txakur zaharra, musturra lurreragino goseak makurtuta eukana.

- «Eup!» -otsoak txakurrari. «Ondo eginak zer merezi dau?»
- «Ondo eginak txarto. Makina bat erbi antzitu dodaz nik ugazabearentzako eta orain gosez hementxe nauka!»

Badoaz barriri, joan ta joan eta behi zaharra aurkitu eben, larra baten oboen-oboena ebilela.

- «Laguna»- itandu eutson otsoak, «ondo eginak zer merezi dau?»
- «Ondo eginak txarto. Hamaika esne zurrutada eder emonikoa banaz ni eta orain hementxe nauke gosez hazur hutsean!»

Otsoak orduan gizonari:

- «Honezkeru jan behar haut» -esan eutson.
- «Ez ni, hirugarrenari beraren eritxia entzun barik.»

Aurrera ta aurrera joiazala, lukia aurkitu eben.

- «Ondo eginak zer merezi dau lukiko?»

- «Ondo eginak zer merezi dauan! Ea ondo egin hori zelakoa dan».

Batak eta besteak lukiari euren artean jazo zana edatsi eutsoen. Lukiak orduan:

- «Otsoko!, lehen zelan egon zaran ikusi behar joaguk, horretarako.»

Hori esanaz, hirurak lehengo bideetan zehar, harako harri handia aurkitu arte, ibili ziran.

- «Hauxe da harria» -esan eban gizonak.

Lukiak eta gizonak otsoa harriaren azpian imini eta esan eban lukiak:

- «Egon haite orain bertan, kokolo txarreko hori!»

Hori esanda, gizonagaz batera alde egin eban.

Hori halan izan bazan,
sartu daitela kalabazan
eta urten daiala
Uretako errotan.

BERBALAPIKO

arnasoska= arnasestuka, itobeharrean.

igaro= pasatu.

naik= naizu. (hitanoa)

zirautson= esan eutson. (irautsi)

nok= nozu. (hitanoa)

joat= dot. (hitanoa)

haut= zaitut. (hitanoa)

jok= dau. (hitanoa)

deustak= deustazu. (hitanoa)

otsoko= ipuinetako otsoa.

bidez bat egin daiguzan= bidean aurkituten doguzan.

burubide= aholku.

oztan-oztan= nekez, doi-doi.

antzitu= harrapatu, oratu.

oboeno-oboeno= biraka, itzulika.

lukiko= ipuinetako lukia.

jazo= gertatu, pasatu.

edatsi= edestu, kontatu.

joaguk= dogu. (hitanoa)

haite= zaitez. (hitanoa)

MUSIKEAREN TXOKOA

Agur lagunok!

Rock'n rollaren inguruko aurtengo argitaratze itxaroenetariko bategaz natortzue, «Supersuckers» taldearen lan bikainagaz, etorri be: «The evil powers of rock'n'roll» (rock'n'rollaren deabruzko indarrak).

Euren «country» musikadun diskoak alde batera itzita, eurek hobeto egiten dabene musika moeta bategaz jator-kuz -punka eta rocka- «country» sunda bategaz. Zeozergaitik dira Tucsonekoak (Arizona). «La mano cornuda» diskoaren ildotik jarraituta, lan biribilagoa lortu dabe disko honetan, abestiak gehiago landuz, nire ustez. Diskoa oso irregularra izan arren, abestiren bat azpimarratzeotan, «I want the drugs» (drogak gura dodaz) nabarmenduko neuke, punk-rock ereserki biribila dalako. Euren zuzenekoak be ez dau indar txistil bape galdu, Algortako Gwendolyne aretoan ikusi ahal izan genduan lez. Bertan, Eddie «Spaghet-ti»-k, ohiko «cowboy» antzaz, eta beraren lagunek astindu ederra emon euskuen-eta, «Smoke of hell», «La mano cornuda» eta «The evil powers of rock'n'roll» lan bikainei errebasoa emonez.

Etor Duoandikoetxea

FILMA

«SOLAS» filma Benito Zambrenoren lehenengoa da. Bertan agertzen diran aktoreak be ezezagunak dira, baina oso lan polita eta ona egiten dabe. Filmaren gaia bakardadea da, eta Zambranok uriko auzo behartsu baten kokatu dau hori gordinago egitearren. 35 (?) urteko andra baten bizitzea da ardatz nagusia. Alde batetik, beraren arazoak behar duina topetako, eta bestetik, beraren mutil lagunagaz daukan hartuemon. Familia hartuemonetan komunikaziorik ezak be bakardadea are nabarmenagoa egiten dau. Baina Zambranok itxaropenari bidea egiten deutso, eta erakutsi egiten deusku, lagunak edozein lekutan aurkitu leitekezana.

Iratze ORMAZA

TXORIAK ARRANO JAUNARI

Hementxe datza
Arrano jauna,
jaun aberatsa
ta ezaguna.

Jan eta edan
ta ondo bizi,
hainbat urtetan
dogu ikusi.

Ai, lehenago
hil balitxaku...
txarto egongo
gintzazan gaur gu.

Mikel ZARATE

BARREGAIK

EPAITEGIAN

- Zeu bakarrik ibilten zara ostuten?
- Bai, epaile jauna. Gatx-gatxa dalako bazkide zintzoak aurkitutea.

TELEFONOZ

Telefonoz berba egiten dauanak:

- Zu, jauna, ba ete da horkoa 999.99.99 zenbakia?
- Ez jauna. Hau 666.66.66 zenbakia dozu.
- Deganino halakoa! Goikoz behera egin dot dei.

BILBOKO URI BARRUKO AUTOBUSEAN

Gizon hasarratua dabil esaten:

- Gaurko gazteak lotsabakoak dira.
- Zer dinozu? -baten batek dirautso. Gazte horrek lekua itzi deutsu-eta.
- Bai, baina, hor daukazu nire andrea oraindinokarren jesarteko leku barik.

datozanak

Etorri datoz, bai etorri be, hurrengo asteetan zer ikusia eta nora joana. Ez lotu, bada, etxean sitsak janda. Jo lekuotara eta gozatu Euskal Herria. Ez dozu damurik izango!

maiatzean

Udabarriko Bira, apirilaren 28tik bagilaren 25era, Nafarroan zehar.
Eszena Dantza, maiatzaren 2tik bagilaren 11ra, Iruñean.
Musiketan, maiatzaren 4an eta 18an, Bilbon.
Alkartasun Eguna, maiatzaren 6an, Bilbon.
Euskal Herriko Dantzari Eguna, maiatzaren 7an, Donostian.
Herri Urrats, maiatzaren 14an, Senperen.
Maiatza Dantzan, apirilaren 15etik bagilaren 17ra, Donostian.
Musikaren Eguna, maiatzaren 19tik 21era, Urdiñarben.
Bizkaiko Dantzari Eguna, maiatzaren 21ean, Bilbon.
UEMA Eguna, maiatzaren 21ean, Iruran.
Arrain Azokea, maiatzaren 21ean, Bermeon.
Ibilaldia, maiatzaren 28an, Balmasedan.
Euskal Jaia, maiatzaren 28an, Donibane Lohizunen.

bagilean

AEKanpada, bagilaren 2tik 4ra, Meñakan.
Euskal Liburu eta Disko Azokea, bagilaren 3an, Donibane-Lohizunen.
Blues Jaialdia, bagilaren 9tik 11ra, Getxon.
San Antonio Jaia, bagilaren 13an, Urkiolan.
Bilboren 700. Urteurrena, bagilaren 17an, Bilbon.
Euskal Herriko Helduen Kantu Txapelketea, bagilaren 17an, Gernikan.
Seaskaren 30. Urteurrena, bagilaren 17an, Miarritzen.
Araba Euskaraz, bagilaren 18an, Laudion.
Itsas Azokea, bagilaren 22tik 25era, Ondarroan.
San Pedro Jaiak, bagilaren 23tik garagarriaren 2ra, Mungian.
Doniene Jaia, bagilaren 24an, Bakion.
Noingo Guduketea, bagilaren 25ean, Getzen.
San Pelaio Eguna, bagilaren 26an, Bakion.
Euskal Herria Zuzenean, bagilaren 30etik garagarriaren 2ra, Arrosan.

garagarrian


Derioko Ikastaroa, garagarriaren 3tik 15era, Derion.
Nazinoarteko Jazzaldia, garagarriaren 5etik 9ra, Getxon.
Sanferminak, garagarriaren 6tik 14ra, Iruñean.
UEU, garagarriaren 10etik 13ra, Miarritzen.
Antzerki Azokea, garagarriaren 12tik 15era, Donostian.
Nazinoarteko Kale-Antzerki Jaialdia, garagarriaren 14tik 16ra, Lekeition.
Jazz Jaialdia, garagarriaren 15etik 20ra, Baionan.
Baztandarren Biltzarra, garagarriaren 16an, Elizondon.
Gasteizko Jazzaldia, garagarriaren 16tik 20ra, Gasteizen.
Musika Astea, garagarriaren 17tik 23ra, Bakion.
UEU, garagarriaren 17tik 28ra, Iruñean.
Nazinoarteko Folklore Jaialdia, garagarriaren 21etik 31ra, Portugaleten.
Madalenak, garagarriaren 22an, Bermeon.
Pastorala, garagarriaren 23an, Eskiulan.
Nafarroako Jaialdiak, garagarriaren 25etik abuztuaren 5era, Iruñean.
Nazinoarteko Folklore Jaialdia, garagarriaren 30ean, Bakion.

badaezpadako jakingarriak

	telefono zkia.	fax zkia.
Udaletxea	94 618 40 01	94 618 31 18
Turismo Bulegoa	94 619 33 95 / 5702	94 619 31 61
Kultur Etxea	94 619 33 69	94 619 31 18
Osakidetza (osagilea)	94 619 42 07 / 4026	
Udaltzaingoa	656 788 623	94 619 31 18
Larrialdietarako zerbitzuak (SOS Deiak)	112	
Taxia	609 443 933	
Abadea (beheko eleizea)	94 619 43 15	
Botikea	94 619 44 72	
Autobusa (Bizkaibus)	94 454 11 35/05 44	
Suamatatzaileak	94 492 28 00	

Ezetz jakin!

Nor da Nor?




Anderrek, Koldok eta Mikelek, Iñakik baino bizar luzeagoa dauke. Mikelek, Koldok eta Iñakik, Josebak baino bizar laburragoa dauke. Mikelek eta Iñakik zenbaki bikoitia dabe.

Itsasoan galduta



Xabierrek iparralderantza begiratuten dau beti. Unaik hegoalderantza begiratuten dau beti. Endikak Xabierrek egiten dauana egiten dau beti. Josu Endikari begira dago beti. Zelan dauke izena itsasoan galduta dagozan lau gizon horreek?



BOLIBAR

Jatetxea

Benta Alde, 180
Tfnoak.: 94 619 4141
94 619 30 00
48130 BAKIO



EROSLE

Etorkizuna!

Bakio bidea, 50
Tfnoa.: 94 619 49 00
48130 BAKIO

ASKADA

KAFETEGIA

Benta Alde, 70
Tfnoa.: 94 619 4006
48130 BAKIO

H

ARIMUNE

OSTATUA

Benta Alde, 95
Tfnoa.: 94 619 4022
48130 BAKIO



GAZTELU-BEGI

JATETXEA - OSTATUA

MAKAILOA - ATUNA - ITSASKIAK

San Pelaio Alde, 86
Tfnoa.: 94 619 4924
48130 BAKIO

IRAGARKIAK
maiatza 2000

TX-31

43



atzera begira

1921. urte inguruko argazkia dogu berau. GOIKOLEA baserriaren etxe alboko mailetan jesarrita dagoz argazkikoak. Balero Barturenen aitita zan Leandro Uriarte (ETXETXUBARRI), aita-amak Juan Barturen (GOIKOLEA) eta Romana Uriarte (ARTETXE) ikusi leitekez hor. Eurokaz batera, hiru neba-arrebak, zaharrenak, Pedro (zutunik), Primitiba eta amaren altzoan dagoan Kontxa Barturen (seintxua) be agertu dira argazkian.

(Argazkia: Enrike Zabalak itzita)